

2024KO OTSAILAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita Bederatzia

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hogeita lau

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

1.- AURREKO AKTA

2024-01-25eko aktaren berri eman ondoren aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK

a.- KONPROMISUZKO KREDITUEN ERANSKINAREN ALDAKETA: T.A.O. ETA IGARTZA MONUMENTU MULTZOAREN KUDEAKETAK. 2024EKBO0022

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

« AURREKARIAK

1.- T.A.O. zerbitzua kontratatzeko (4 urte 2024ko abuztutik aurrera) eta Igartzako monumentu-multzoa kudeatzeko zerbitzua (2 urte 2024ko ekainaren 18tik aurrera) kontratatzeko behar den kreditua ematea proposatzen da.

2.- 2024ko ekitaldiari dagokion kreditua erabilgarri dago baina ez da aurreikusi ondorengo ekitaldietarako beharko dena, beraz, beharrezkoa da hurrengo ekitaldietarako behar diren kredituak hornitzea, konpromiso-kredituen eranskinean txertatuta.

Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo PROPOSAMENA

Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kredituak txertatuz:

<u>2.025 urtea:</u>	<u>2.026 urtea:</u>	<u>2.027 urtea:</u>	<u>2.028 urtea:</u>
0270.227.133.20.1 0 O.T.A./T.A.O.: 382.000,00 €	0270.227.133.20.1 0 O.T.A./T.A.O.: 382.000,00 €	0270.227.133.20.1 0 O.T.A./T.A.O.: 382.000,00 €	0270.227.133.20.1 0 O.T.A./T.A.O.: 222.833,00 €
0240.227.432.00.0 4 Igartza kudeak.: 114.951,08 €	0240.227.432.00.0 4 Igartza kudeak.: 53.324,53		

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros estamos en contra. En el pleno anterior se presentó la propuesta de modificación de Ordenanza de tráfico que a, su vez, conlleva el cambio en el servicio de la OTA y de ahí la modificación de créditos porque va a tener un aumento de costo. Ambas propuestas, por lo tanto, van relacionadas. No estamos a favor de los cambios propuestos en la Ordenanza y por ello votamos en contra.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Eremuaren handitzeak baliabide gehiago jartzea suposatzen du eta horretan datza eranskinaren aldaketa.”

Interbentzio gehiagorik ezean, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu, eta ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK

a.- KONTRATAZIOA

- KONTRATAZIOA: ZERBITZUAK KONTRATATZEA: IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOKO JAUREGIA, ERROTA, BURDINOLA ETA ERMITA KUDEATZEA.
2023BOCU0005

Ezagutzera eman dira pleguen ezaugarria:

1.- *Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*

2.- *Izapidetzea: arrunta*

3.- *Lizitazio prezioa: 95.000,9 €, BEZ gabe.*

4.- *Egikaritze epea: Bi urte kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasit eta urte beteko hiru luzapen.*

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*

Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 142.521,34 € gutxienez.

6.- *Kaudimen teknikoa: Azken 3 urteetan antzeko zerbitzuak eman izanaren zerrenda, kontratua gauzatzeko atxikitako teknikariak edo unitate teknikoak enpresan integratu egoon zein ez eta kontratu arduradunaren identifikazioa (bi kasutan eskatuko da Europako Erreferentzia Esparruko B2 gaitasun-maila.*

7.- Aurkezteko epea eta lekua: 15 egunekoa kontrataziorako plataforman iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita . Lizitazio elektronikoa.

8.- Adjudikazio irizpideak:

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak: kudeaketa proposamena (50 puntu)

Ekintza plana eta plangintza (20 puntu), sare sozialak (15 puntu) eta espazioen sustapen komertzial erako eredua (15 puntu).

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (50 puntu)

- Eskaintza ekonomikoa. 30 puntu.

- Langileen kualifikazioa: 20 puntu

Bisita gidatuek kontratua ondo gauzatzeari nabarmen eragin diezaioketela kontuan hartuta, zerbitzuari atxikitako pertsonetako batek gutxienez adierazitako kualifikazioren bat izatea baloratuko da, lehenengo bi kasuetan dagokion titulua aurkeztuz eta, hirugarrenean, emandako zerbitzuen ziurtagiriaren bidez.

- 10 puntu: hizkuntzak: euskara (C1 maila edo baliokidea),

- 5 puntu: hizkuntzak: ingelesa eta frantsesa (Hizkuntza Eskola Ofizialeko B2 maila edo baliokidea). Bakarrik hizkuntza horietako baten titulua aurkezten bada, 2,5 puntu emango zaio.

- 5 puntu: Esperientzia bisita gidatuak egiten.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:

- Lan-merkatuan emakumeek gehiago parte hartzea eta lan- eta familia-bizitza bateragarriak izan daitezen erraztea.

- Langabeziari aurre egitea, batez ere gazte, emakume eta luzaroko langabeenari.

- Lantokian prestakuntza jasotzen laguntzea.

- Kontratua hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago.

Baldintza plegu teknikoan adierazten da zerbitzua zein baldintzetan ema behar den.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Una duda que nos surge y que EH Bildu comentó en la comisión es que no se recoge la subrogación de los trabajadores y se dijo que era por el tipo de contrato. ¿Por ser un contrato de servicios?.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ez. Kasua da langileak zein hitzarmenetara atxikita dauden. Oinarritzat hartzen den hitzarmena aisihetzitzaileena da eta animazio sozio kulturalaren Estatuko lan-hitzarmen orokorra eta hitzarmenean txertatuta egon behar du ea langileek subrogatzeko eskubidea duten ala ez. Hitzarmen horretan ez da aintzakotzat hartzen. Beraz, ulertzen da langileek ez dutela subrogatzeko eskubiderik. Gertatu daiteke

datorrenari interesgarria iruditzea bertan daudenei kontratatzea duten esperientziagatik.”

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Aunque no tenga derecho a la subrogación puede ser nuestra voluntad el recogerlo en la licitación.”

Idazkariak esan du Kontratu Legearen 130.artikuluaren arabera pleguetan subrogazioari buruzko informazioa jaso behar dela beti ere eragin orokorra duen lan-hitzarmenak, langileen subrogazioa aurreikusten badu.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk kezka horrez gain (batzordearen ostean argitu zitzaigun), gela erabilpenari buruzko zalantza azaldu genuen, oso garbi geratzen ez delako elkarteek noiz ordaindu behar duten eta noiz salbuetsita dauden ordaintzetik. Batzordean aipatu zen udalarekin hitzarmena dutenek salbuetsita egongo liratekeela baina hori ez da espreski adierazten.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Orain arte bezala pleguen izpiritua da udalarekin hitzarmena duten elkarte eta baita ere talde politikoei erabilera ez kobratzea. Pleguetan kontraesana egon ezkerro aldatuko genuke.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Kontraesana baino dagoena da zehaztaperen falta”.

Eztabaida egon da orain arte egon den eta mantendu nahi den izpirituarekin eta hori islatzen den pleguetan idatzita dagoenarekin.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Pleguek zehaztasun gehiago behar dute eta gure ustetan Igartzako monumentu multzoa herritarrekiko irekiagoa egon beharko litzateke ikusita zein espazio falta dugun, bilerak, ekintzak, ekitaldiak, jardunaldiak, etab. egiteko. Izan ere, batzar aretoa sarritan okupatuta egoten da. Igartzan arratsalde batean hitzaldi bat egiteagatik, 330 €ko tasa ordaintzea ekarriko luke. Oso ondo iruditzen zaigu udalarekin hitzarmena dute elkarteentzat Igartzaren erabilera doanik izatea, baina hitzarmenik ez duen norbait etortzen bada diru hori ordaindu beharra izatea, gehiegi iruditzen zaigu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ekitaldiaren arabera baloratu beharko litzateke eta jartzen badugu udalak emango duela azken hitza, ontzat emango nuke.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk eskatuko genuke ahalik eta zehaztaperen gehiena egotea gaizki-ulertuak izan ez daitezten. Nor gara gu baloratzeko hitzaldi bat salbuetsita egon behar duen eta beste bat ez!. Ondo iruditzen zaigu udalarekin hitzarmena dutenek salbuetsita egotea, baina hortik kanpo ”irekiera” hori izatea baloratzen dugu eta tasak kobratu behar badira oso ondo zehaztu zein kasutan bai eta zein kasutan ez.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zehaztaperena eskatzen duzun moduan, denei irekia uztea ere badu bere arriskua. Askotan batzar aretoa libre egonik ere, arrazoi ezberdinagatik Igartzaren erabili nahi izaten da eta Igartzaren irekitzeak bere kostuak ditu. Noski, beste tokiak beteta badaude eta helburuaren arabera, erabili ahal izango litzateke baina zehaztaperenak ere badu bere arriskua.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk ez dugu ulertzen kontuan izan beharreko baldintzetako bat helburua izatea. Irekita esaten dugunean esan nahi dugu eskaera aurkeztu beharko litzatekeela eta agin fidantza eskatu beharko litzatekeela.”

Alkateak galdetu ondoren Beasaingo EH Bilduko ordezkariak esan du beraien proposamena izango litzatekeela adieraztea udalarekin hitzarmena dutenek (elkarlanean, ordezkari) eta ikusiko balitz irekitasun hori izatea, baldintzak zehaztea: eratutako elkarteak izan behar diren, zein aurrerapenarekin egin behar duten erabilera-eskaera, fidantza aurkeztea,...

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Lehentasuna udalarekin hitzarmen dutenei ematearekin, ez da betetzen.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Bai, Plenoan gaude eta hau batzordean landu beharreko gauza izango litzateke. Gure kezka batzordean azaldu genuen, galdetu beharra izan dugu astean zehar ...Nahi baduzue mahai gainean utzi dezakegu eta hurrengo batzordean tratatu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV) esan du egungo kontratuaren epe-muga kontuan izanda, gaur onartu beharko liratekeela pleguak lizitazio deialdia egiteko.

Herritarrek batzordeko lehendakariak (EAJ-PNV) esan du bere ustetan jarrita dagoen bezala nahiko argi geratzen dela eta elkarlan-hitzak hitzarmena izatearen pareko dela.

Alkate andreak (EAJ-PNV) proposatu du baldintza plegu teknikoa aldatzea eztabaidan dagoen puntuarekiko eta erredakzioa ondorengoa izatea:

a) Udalak berak zuzenean (erabilera ordaintzetik salbuetsita)

- *Udalak elkarlanean udalerriko ondorengoekin: enpresa pribatu, erakunde publiko, talde edo alderdi politiko, gizarte- eta kultura-eragileekin edota udalarekin hitzarmena duten elkarteekin. Udalak ezarriko ditu jarduera edo ekitaldi bakoitza garatzeko baldintzak.*
- *Udal herrikoak ez diren bestelako talde, elkarte, erakunde publiko, alderdi politiko zein enpresak, beti ere Udalak bere oniritzia ematen badu eta adierazitako baldintzak errespetatzen badira.*

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da.

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH Bildu, eta ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

- KONTRATUA LUZATZEA: BEASAINGO ANTZIZAR KIROLDEGIKO KIROL GUNEAREN KUDEAKETA ZERBITZUA EMATEARI BURUZKOA. 2022KIBO0032

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

1.- Udalbatzak 2022ko abenduaren 1ean Udalbatza Osoak erabaki zuen, Beasaingo Antzizar kiroldegiko kirolgunearen kudeaketa zerbitzua kontratatzea prozedura irekiaren bidez eta erregulazio harmonizatuaren pean. Horretarako, baldintza administratibo eta teknikoen agiriak onartu ziren.

2.- Alkate andreak, 2023ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez, aipatutako zerbitzua *INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L.*ren alde behin betiko esleipen-Ebazpena eman zuen.

3.- Bi aldeek elkar kontratatzeko eta behartzeko gaitasuna aitortu zioten elkarri, eta, bi aldeek eskubideak eta betebeharrak arautzeko, 2023ko martxoaren 13an kontratua sinatu zen, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aipatutako 153. artikulua eta Administrazio-klausulen agiriko 23. klausulen arabera.*

4.- Kontratuan urtebeteko luzapena aurrikusi da.

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio, azter dezan:

Lehena.- Urtebeterako eta egungo baldintzetan, prezioa barne, Instalaciones Deportivas MasQuatro, S.L. enpresari kontratua luzatzea, Antzizar kiroldegiko kirolgunearen kudeaketa zerbitzua emateko.

Bigarrena.- Luzapena 2024ko martxoaren 13tik 2025ko martxoaren 12ra izango da.

Hirugarrena.- Instalaciones Deportivas MasQuatro, S.L. enpresari erabaki honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da inolako interbentziorik izan

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

b.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK:

- BEASAINGO UDALERRIAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK. 2024. URTEKO DEIALDIA 2024BOBE0001

Ezagutzera eman da Herritarrek batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

I.-Beasaingo Udala beti aritu da elkarlanean emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan lanean diharduten herriko elkarteekin eta horretarako urtez-urte bere aurrekontuetan erakundeei diruz laguntzeko partida kontsignatu du.

II.-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua kontuan hartuta, diru-laguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka-erregimenean izapidetu behar da.

III.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2022ko ekainaren 1ean, hain zuzen, lehen aldiz argitaratu ziren Beasaingo udalerrian emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan diharduten elkarteentzako dirulaguntzak emateko oinarriak. 2023. urtean guztira 2 proiektu aurkeztu ziren, eta guztira 12.000 euro jaso zituzten.

LEGERI APLIKAGARRIA

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2020-2022 (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.4. Diru-laguntza ildoak: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea).

PROPOSAMENA:

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzen duten elkarteentzako dirulaguntza emateko oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Deialdia egitea oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute:

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

“BEASAINGO UDALERRIAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK. 2024. URTEKO DEIALDIA

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,27 artikuluan, udalerrriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta kudeatzea.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina probatzen duena adierazten du toki-administrazioaren eskumena dela:

f) Toki-eremuan sentsibilizazio-jarduerak egitea, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriez.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek edo funtzioek tokian-tokian emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

Horretan oinarrituta, Udalaren helburua da gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea eta emakume eta gizonezkoen arteko elkartasun eta berdintasun baloreak sustatzea, bai eta Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa sustatzea ere. Zehazki, helburu hauek dituzten jarduerak:

- Elkarte-bizitza bultzatzea.
- Emakume eta gizonen arteko parekidetasuna sustatzea.
- Beasaingo emakumeen parte hartzea sustatzea udalerriko bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaren esparru guztietan.

Horretarako, diru-laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira aurrerago zehazten direnak, honako hauek kontuan hartuta:

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.3. Diru-laguntza lan-ildoak: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea).

Udalak urtero eskaintzen ditu laguntza horiek, udalerriko emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarten jardura autonomoa babesteko, bai eta elkarte horien eta beste elkarte batzuen jardura ere (kirola, kultura...), herritarrak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko. 2023an aurkeztutako bi proiektuen memoriak aztertu ondoren, helburua lortzen lagundu dutela eta aurreikusitako kreditua nahikoa dela egiaztatu da.

I.- XEDEA

1.1. Oinarri hauen xedea da Beasaingo Udalak emango dituen laguntzak arautzea, bai Emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarten ohiko funtzionamendugastuetarako, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programa espezifikoak eta/edo zerbitzuak garatzeko.

1.2. Programa eta jarduera horiek ez dute irabazteko asmorik izango; Beasaingo udalerrian garatuko dira edo, udalerritik kanpo garatzen badira, haien onuradunak Beasainen erroldatutako pertsonak izan behar dute; eta diru-laguntza deialdiari dagokion ekitaldian garatuko dira.

II. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PROIEKTUAK/JARDUERAK

Jarraian zehaztuko diren jarduera eta programek, berdintasuna sustatzea helburu dutenek, jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak, Beasaingo Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana eta EAEko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana kontuan izanda.

Diru-laguntzen 2 ildo ezarri dira:

- a) 1. Ildoa: Beasaingo Emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarteek ohiko funtzionamendu-gastuak, hala nola instalazioak eta ekipoak mantentzea, bazkideak prestatzeko eta ahalduentzeko jarduerak. Kontzeptu horretarako 8.000,00 € bideratu dira guztira.
- b) 2. Ildoa: Beasaingo herritarrei zuzendutako proiektuak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Kontzeptu horretarako, guztira, 8.000,00 € erabili dira.

Diru-laguntza lerro bakoitzeko eska daitezkeen gehieneko zenbatekoa 6.000,00 € da.

Beasaingo Emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarteek dirulaguntzaren lehen lerroan aurkeztutako proiektuetara bideratutako zenbatekoa agortzen ez bada, eman gabeko zenbatekoa dirulaguntzaren bigarren lerroko proiektuen artean banatu ahal izango da, betiere proiektu bakoitzeko gehienez 6.000 €-ko zenbatekoa gainditzen ez bada.

Deialditik kanpo daude:

- a.- Beren edukiengatik eta helburuengatik udalaren beste deialdi batzuei dagozkien eskaerak.
- b.- Aisialdiko jarduerak baino ez diren proiektuak.
- c.- Genero-ikuspegirik gabeko proiektuak.

III. ERAKUNDE ONURADUNAK

Irabazi-asmorik gabeko udal-elkarteak izan daitezke oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Legez eratuta egon behar dute eta, elkarteek eta fundazioek, horrez gain, Elkarleen Erregistro Orokorrean edo Eusko Jaurlaritzako Erregistro Bereziaren inskribatuta egon behar dute. Deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko eguna baino, gutxienez, urtebete lehenago egon behar dute inskribatuta dagokion Erregistro Publikoan.

- b) Elkarteek Beasainen izan beharko dute egoitza soziala, ordezkaritza edo administrazio-egitura iraunkorra.

Hauek ezingo dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

-Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.

-Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.

-Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriaragatik gertatutakoak barne.

-Foru Ogasunekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

-Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

-Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

IV. ONURADUN ENTITATEEN BETEBEHARRAK

Entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Beasainen jardueraren bat edo programaren bat egitea, deialdiaren urtean.
- b) Udalaren aurrean, jarduera egin dela eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea.
- c) Beasaingo Udalak egingo dituen ikuskapenen menpe jartzea, eta egin behar dituen ikuskatze jarduerak ez eragozte.
- d) Jarduera bererako lortu den beste edozein dirulaguntzaren berri ematea (iturria publikoa zein pribatua izan).
- e) Diruz lagundutako jarduera guztietan egiten den publizitatean, baita ohiko funtzionamendu-gastuei buruzkoetan ere, Udalaren lankidetzari adierazi beharko da, udal-armarria sartuta.
- f) Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal Ordenantza betetzen dela zaintzea

V. FINANTZAZIOA

Oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzen zenbatekoa 16.000,00 €koa da, eta honako aurrekontu-partida honen kargura finantzatuko da: 2024. 0241.481.231.50.03 "Berdintasuna sustatzeko dirulag."

VI. ESKABIDEAK AUKEZTEA

Epea:

Udalbatzak onetsitakoan, DNBrak bidaliko dira, eta GAOari argitaratu ondoren, eskaerak aurkezteko epea hasiko da. Epea hilabetekoa izango da, oinarriak GAOari argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Modua:

Eskabidea oinarri hauetako 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>
- Aurrez aurre, Igunean.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Erakundearen IFKren kopia.
- b) Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua, behar bezala beteta.
- c) Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.
- d) Laguntzea eskatzen den ekintza edo programari buruzko txosten zehatza.
- e) Diru-laguntza eskatzen den proiektu, jarduera edo programa espezifikoaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua

VII. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Kultura, euskera eta merkataritza azpiarloari dagokio oinarri hauetan aldez aurreko laguntzak kudeatzea. Teknikariek arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz ondorengo oinarrian adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta: Laguntzak emateko edo ukatzeko, Alkatetzaren ebazpena emango da, eta ebazpen hori diru-laguntza eskatzen duen erakundeari jakinaraziko zaio, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean gehienez.

VIII. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak behar bezala baloratzeko ondorengo hautaketa irizpideak egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Gehienezko puntuazioa 100 puntukoa da. 50 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak bakarrik lagunduko dira diruz.

Banaketa- eta puntuazio-irizpideak:

- a) Dirulaguntza 1. lerroa: Beasaingo emakume-elkarteak eta elkarte feministak funtzionamendu gastuak eta emakumearen ahalduntzea:
 - Emakume bazkide kopurua: 35 puntu arte
 - Emakumeen presentzia elkartearen zuzendaritza postuetan: 5 puntu arte
 - Elkartearen antzinatasuna: 10 puntu arte
 - Jardueraren iraupena: 10 puntu arte
 - Udal-programak eta - jarduerak antolatzen laguntzea eta/edo horietan parte hartzea : 5 puntu arte
 - Genero ikuspegia: 10 puntu arte
 - Programa / jarduera euskaraz garatzea: 5 puntu arte
 - Beste entitate eta eragile batzuekin lankidetzatza: 5 puntu arte
 - Programaren koherentzia tekniko, laguntzen xedearen arabera: 15 puntu arte
- b) Dirulaguntza 2. lerroa: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko proiektu interesgarriak
 - Beasaingo emakume bazkide kopurua: 35 puntu arte
 - Emakumeen presentzia elkartearen zuzendaritza postuetan 5 puntu arte

- Elkaratearen antzintasuna 10 puntu arte
- Jardueraren iraupena 10 puntu arte
- Genero ikuspegia 20 puntu arte
- Programa / jarduera euskaraz garatzea 5 puntu arte
- Herritarren parte hartzea eta beste entitate eta eragile batzuekin lankidetzan 5 puntu arte
- Programaren koherentzia teknikoa, laguntzen xedearen arabera 10 puntu arte

Oro har, emango den diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundutako jardueraren edo programaren kostuaren % 60koa izango da. Diru-laguntzaren zenbatekoaren eta aurreikusitako gainerako diru-sarreraren baturak ez du inolaz ere ekarriko diru-sarrerak aurreikusitako gastuak baino handiagoak izatea.

Hala ere, jarduera edo programaren kostuaren 100eko 80ko dirulaguntza jaso ahal izango dute 70 puntuko edo gehiagoko balorazioa lortzen dutenek, oinarri hauetan ezarritako mugen barruan. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo da izan garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Diru-laguntza honen xede diren jarduerak garatzeko udal zentroetan espazioak erreserbatzea ordaintzetik salbuetsita egongo da.

Eman beharreko diru-laguntzen zenbateko osoa aurrekontuetan diru-laguntzak estaltzeko erabilgarri dagoen dirukopurua baino handiagoa bada, diru-laguntza guztiak murriztu egingo dira portzentaje berean, harik eta diru-laguntza guztien zenbatekoa aurrekontuetan erabilgarri dagoen diru-kopuruarekin estali arte.

IX. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Diru-laguntzaren zenbatekoak honela ordainduko dira:

- % 70a, diru-laguntzak esleitzeko ebazpena eman eta hilabeteko epean, aurrerakin gisa.
- % 30a, egindako gastuaren justifikazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

X. JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK.

Justifikatzeko epea ez da 2025ko urtarrilaren 30etik gorakoa izango.

Justifikazioa egiteko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Egindako gastuen zerrrenda eta horien egiaztagiria: fakturak.
- b) Egindako proiektuaren edo jardueraren memoria:
 - Egindako jarduerak eta egutegia.
 - Diru-laguntzaren xede den programa gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (argazkiak, kartelak, programazioak ...).
 - Parte-hartzaileen kopurua (sexuaren arabera bereizita).
 - Gauzatze-mailaren ebaluazioa.

c) Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa

Diruz lagundutako jarduera edo proiektu bakoitzaren diru-sarrerak jatorrizko agirien bidez edo udaleko langileekin konpultsatutako agirien bidez edo elkarte edo erakundeko ziurtagirien bidez justifikatu beharko dira.

Udalari aurkezten zaizkion justifikazioetan egiaztatzen bada diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren azken kostua diru-laguntza kalkulatzeko onartutako aurrekontua baino txikiagoa dela, diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, proiektua edo jarduera egitearen proportzioan.

XI. ESKABIDEEN BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntzen oinarri hauetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde eta organismo batzuek emandako beste edozein laguntzarekin. Kasu horretan, horren berri eman beharko dio Udalari.

XII. DIRU-LAGUNTZAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA

X. oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

XIII. ERREKURTSOAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hura interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, administrazio-errekurtsoa aurkez daiteke Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, oinarri horiek GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera..

- KULTURA, KIROLA EDO GENERO BERDINTASUNERA EDO KONTZILIAZIO ERANTZUKIDERA ZUZENDUTA DAUDEN EKINTZA EDO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN 2024. URTEKO DEIALDIA.
2024BOBE0002

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Beasaingo Udalak hainbat urtez kultura, kirol eta genero berdintasuneko jarduerak bultzatzen ditu herriko hainbat eragilarekin egindako hitzarmenen bidez. Hala ere, kulturarekin, kirolarekin edo genero-berdintasunarekin lotutako ekimen berriak sortu ohi dira urtean zehar. Diru-laguntza hauen helburua da beasaindarren parte-hartzea sustatzea, ekimen berri horietarako diruz laguntzaren bidez.

II.- 2024. 0260.481.337.20.01. 2022. kontusail
espezifikoan 10.000 euroko kreditua kontsignatu da "kultura, kirola, berdint. ekintz.
dirulaguntzak" emateko.

LEGERI APLIKAGARRIA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua,
887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).

Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. helburu
estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.9. Diru-laguntza ildoak: Kultura, kirola eta
genero berdintasunera zuzenduta dauden ekintza eta jardueretarako).

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten
dio:

Lehenik: Kultura, kirola eta genero berdintasunera zuzenduta dauden ekintza eta
jardueretarako dirulaguntza emateko oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Deialdia egitea, oinarriak argitaratuz."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu
dute:

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

KULTURA, KIROLA EDO GENERO BERDINTASUNERA EDO KONTZILIAZIO
ERANTZUKIDERA ZUZENDUTA DAUDEN EKINTZA EDO JARDUERETARAKO
DIRULAGUNTZEN 2024. URTEKO DEIALDIA

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan,
udalerraren eskumen propio gisa aurreikusten du:

- 19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko
kirol-ekipamenduak kudeatzea.
- 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera
publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
- 27) Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta
kudeatzea.
- 35) Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerriartasunaren
inguruko legeriarekin bat etorriz eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
- 36) Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Horretan oinarrituta, Udalaren helburua Herritarrek tokiko politika publikoak formulatu, egikaritu eta ebaluatzeko prozesuetan parte hartzea da. Zehazki, helburu hauek dituzten jarduerak:

- Elkarte-bizitza bultzatzea.
- Beasaingo emakume eta gizonen parte hartzea sustatzea udalerriko bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaren esparru guztietan.

Horretarako, diru-laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira aurrerago zehazten direnak, honako hauek kontuan hartuta:

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina
- Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.9. Diru-laguntza ildoak: Kultura, kirola eta genero berdintasunera zuzenduta dauden ekintza eta jardueretarako).

Laguntza hauen bidez udalerrian aurretik egiten ez ziren eta profil desberdinetako pertsonak parte hartzera bultzatzen dituzten jarduerak egiten laguntzeko da. 2023an aurkeztutako 5 proiektuen memoriak aztertu ondoren, helburua lortzen lagundu dutela eta aurreikusitako kreditua nahikoa dela egiaztatu da.

I. XEDEA

1.1. Oinarri hauen xedea Beasaingo udalerrian zein udalerritik kanpo, beti ere, beasaingarrentzat interesgarriak izan daitezkeen heinean, kirol, kultura edo genero berdintasuna sustatzen dituzten ekintzak eta jarduerak garatzeko lotutako jardura eta ekitaldien garapenean udalerriaren barruko zein kanpoko elkarte, klubak eta herritarren parte hartzea sustatzea da.

1.2. Programa eta jardura horiek ez dute irabazteko asmorik izango; Beasaingo udalerrian garatuko dira edo, udalerritik kanpo garatzen badira, haien onuradunak Beasainen erroldatutako pertsonak izan behar dute; eta diru-laguntza deialdiari dagokion ekitaldian garatuko dira.

II. ONURADUNAK

Beasaingo elkarte, klubak eta herritarrak izan daitezke oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Elkarte eta klubak kasuan, Beasainen izan beharko dute egoitza soziala, ordezkaritza edo administrazio-egitura iraunkorra.
- b) Herritarren kasuan, dirulaguntza eskatzen den momentuan Beasainen erroldatuta egon beharko da.

Hauek ezingo dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

-Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.

-Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.

-Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriaragatik gertatutakoak barne.

-Foru Ogasunekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

-Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

-Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako

errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

III. ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Beasainen jardueraren bat edo programaren bat egitea, deialdiaren urtean.
- b) Udalaren aurrean, jarduera egin dela eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea.
- c) Beasaingo Udalak egingo dituen ikuskapenen menpe jartzea, eta egin behar dituen ikuskatze jarduerak ez eragozte.
- d) Jarduera bererako lortu den beste edozein dirulaguntzaren berri ematea (iturria publikoa zein pribatua izan).
- e) Diruz lagundutako jarduera guztietan egiten den publizitatean, baita ohiko funtzionamendu-gastuei buruzkoetan ere, Udalaren lankidetzara adierazi beharko da, udal-armarria sartuta.
- f) Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal Ordenantza betetzen dela zaintzea

IV. FINANTZAZIOA

Oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzen zenbatekoa 10.000,00 €koa da, eta honako aurrekontu-partida honen kargura finantzatuko da: 2024. 0260.481.337.20.01. kultura, kirola, berdint. ekintz. dirulaguntzak

V. ESKABIDEAK AUKEZTEA

Epea:

Udalbatzak onetsitakoan, DNBra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu ondoren, eskaerak aurkezteko epea hasiko da. Dirulaguntza eskatzeko epea azaroak 28an amaituko da.

Modua:

Eskabidea oinarri hauetako eskaera orrian jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>
- Posta zerbitzuaren bidez.
- Aurrez aurre, Igunean.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Kultura, kirola edo genero berdintasunera eta kontziliazio erantzunkideari zuzenduta dauden jarduerak eta ekitaldiak diruz laguntzeko eskabidearen eredu normalizatua, oinarri hauekin batera aurkeztu dena. Bertan, besteak beste, honako informazioa jasotzen da:
- Diru sarrera eta gastuen aurrekontu xehea, aurreikusitako finantza baliabideak adieraziz (kuotak, doantzak, bestelako organismoen diru laguntzak...).
- Garatu nahi den programaren azalpena. Bertan honako helburuak jorratuko dira: parte hartzaileak, datak, egingo diren tokiak, metodologia...
- Elkartearen Estatutueto eta Zuzendaritza Batzarra osaketaren fotokopia, aldaketarik izan badute edo inoiz aurkeztuak izan ez badira.

VI. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Oinarri hauek antolatzea eta bideratzea Herritarrak arloari dagokio. Batzorde Kalifikatzailea izango da prozedurataz arduratuko den organoa, eta honako hauek osatuko dute: Kultura, Kirola, Berdintasuna, Gazteria, Merkataritza eta Hizkuntza Politikako Teknikariak. Teknikariek arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz ondorengo oinarrian adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Laguntzak emateko edo ukatzeko, Alkatearen ebazpena emango da, eta ebazpen hori diru-laguntza eskatzen duen erakunde edota pertsonari jakinaraziko zaio dirulaguntzaren eskaera formala egin eta hilabeteko epean.

VII. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak behar bezala baloratzeko ondorengo hautaketa irizpideak egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa da. 50 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak bakarrik lagunduko dira diruz.

Banaketa- eta puntuazio-irizpideak:

- A) Jarduera baloratzeko irizpideak: Kontuan izango dira:
- a) Jardueraren interesa: Irizpide horren barruan baloratu daitezkeen gaiak: udal sailtako ildo estrategiko, helburu eta irizpideekin bat egitea; partaide kopurua; aurreikusitako eragina; berrikuntza; eremu geografikoa; programaren iraupena; zuzendutako gizarte atala;; bestelako erakundeekin lankidetzak....(20 puntu arte)
 - b) Programaren diseinuaren kalitatea: Irizpide horren barruan baloratu daitezkeen gaiak: Honako hauek barne hartzea: espero diren emaitzak; betetzea eta ebaluatzeari buruzko erakusleak; kanpo komunikazioa; barne komunikazioa; teknologia berriak erabiltzea. (20 puntu arte)
 - c) Aurrekontua egokitzea: Irizpide horren barruan baloratu daitezkeen gaiak: finantza ahalegina (bestelako finantzabideak bilatzea); aurreikusitako fakturazioaren zehaztasun maila. (20 puntu arte)
 - d) Jardueran zeharkako gaiei emandako tratamendua. Irizpide horren barruan baloratu daitezkeen gaiak: euskararen presentzia; ehuneko esanguratsu batean 13 eta 35 urte arteko gazteei zuzendutako programak; programak talde gazteen

parte hartzea barne hartzea; programan genero ikuspegia sartzea; lengoia eta irudiaren erabilera ez sexista. (25 puntu arte)

- B) Pertsona edo erakunde eskatzailearen balorazioa. Irizpide horren barruan baloratu daitezkeen gaiak:
- a) Udal programetan laguntzea (Jai Batzordea, Berdintasun Kontseilua...). (10 puntu arte)
 - b) Egitura partizipatiboa eta ekitatiboa. (5 puntu arte)

Puntuen banaketa oinarri hauetako 2. eranskinean jasotako moduan ezarriko da.

Hala ere, jardueraren edo programaren kostuaren % 100 diruz lagundu ahal izango da, 70 puntuko edo gehiagoko balorazioa jasotzen duten eskaeren kasuan, beti ere, oinarri hauetan adierazitako gehienezko mugen barruan. 51 eta 70 puntu arteko balorazioa lortuz gero, proiektuaren % 80k jasoko du dirulaguntza. Diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, inola ere, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

VIII. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Ebazpenerako gehieneko epea hilabetekoa izango da.

Kontzesioa jakinarazi eta hilabeteko epean, emandako kopuruaren %90 aurrez ordainduko da. Ordainketa horiek justifikazioa baino lehen emandako fondoak izango dira, diruz lagundutako jarduerak burutzeko behar den finantzabidea edukitzeko asmoz.

Programa honen kontura emandako dirulaguntzaren %10-a justifikatzeko dokumentazioa aurkezten denean ordainduko da.

Gehienez, 3.000€ko laguntza jasoko du proiektu bakoitzak.

IX. JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK

Jasotako diru laguntzaren justifikazioa aurkezteko epemuga ez da inoiz izango 2025ko urtarrilaren 30 baino geroago.

Kultura, kirola edo genero berdintasunera eta kontziliazio erantzunkidera zuzenduta dauden jarduerak eta ekitaldiak diruz laguntzeko zuriaketaren eredu normalizatuarekin batera aurkeztu behar diren agiriak honako hauek dira:

- Proiektua izandako garapenaren laburpen txostena eta helburuen ebaluazioa.
- Diruz lagundutako jardueraren Sarrera eta Gastuen Balantzea, beste instituzioetatik jasotako diru-laguntzak barne, oinarrietako eredu normalizatuaren arabera.
- Gastu guztien ordainagiriak edota fakturak.
- Editatu diren aldizkariak, kartelak eta gainerako publizitatea, Udalaren babesletza agertu beharko dute.

Diruz lagundutako jarduera edo proiektu bakoitzaren diru-sarrerak jatorrizko agirien bidez edo udaleko langileekin konpultsatutako agirien bidez edo elkarte edo erakundeko ziurtagirien bidez justifikatu beharko dira.

Udalari aurkezten zaizkion justifikazioetan egiaztatzen bada diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren azken kostua diru-laguntza kalkulatzeko onartutako aurrekontua baino txikiagoa dela, diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, proiektua edo jarduera egitearen proportzioan.

X. ESKABIDEEN BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntzen oinarri hauetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde eta organismo batzuek emandako beste edozein laguntzarekin. Kasu horretan, horren berri eman beharko dio Udalari.

XI. DIRU-LAGUNTZAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA

IX. oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, geratzen den %10-a ez da ordainduko eta diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

XII. ERREKURTSOAK

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hura interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, administrazio-errekurtsua aurkez daiteke Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, oinarri horiek GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.”

- BERTAKO PRODUKTUAK MERKATURATZEKO ETA KONTSUMOA SUSTATZEKO. 2024OIME0003

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena.

“AURREKARIAK

1. Udal Gobernuak tokiko produktuen merkatua martxan jarri zuen 2017ko otsailean, hileko lehen larunbatean, merkatuaren jarraipena ziurtatzeko eta denboraldiko produktuak erosteko aukera emateko, astearteetako merkatura joateko zailtasunak dituzten herritarrei. Horrela, ekoizleei eta kontsumitzaileei bertako produktuak zirkuitu laburren bidez merkaturatzea eta kontsumitzea bermatu nahi zaie.
2. Merkataritza azpisaileko arduradun teknikoak 2024-02-13an egindako txostena.
3. 2023an 7 ekoizleri eman zaie dirulaguntza.
4. Idazkaritzaren txostenak adierazten du aurreikusitako moduan sustatu nahi den jarduera ez dela dirulaguntza kontzeptuaren araberkoa, baizik eta kontratazioari lotutako zerbitzu-prestazio batena. Kontu-hartzailetzaren aldetik, fiskalizazio-txostena ere ematen da erreparoarekin.
5. Hala ere, erantsi diren eta onartzeko proposatu diren oinarriak prestatu dira, eta horretarako, 0243.471.431.20.01 kontu-saila jarri da "azoka dinamizatzeko dirulaguntza", honako arrazoi hauengatik: Kontratazioa bideraezina da ekoizle-eskasiagatik eta fakturatzeko zailtasunagatik.

OINARRI JURIDIKOAK

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.

-38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

-Dirulaguntzak arautzen dituen Udal araua.

-Beasaingo Udalaren 2023-2025 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

PROPOSAMENA

Ondorioz, Herritarren Batzordeak Udalbatza Osoari honako akordio proposamena egiten dio:

Lehen: Oinarriak onartzearen aldeko erreparoa ebatzea eta aurreikusitako laguntzak emateko deialdia egitea, tokiko produktuekin merkatua izateari lehentasuna ematean, herritarrentzat interes orokorrekoak direlako. Horrela, eskualdean tradizio kultureko ohiturak zaindu, desagertzea saihestu eta bertako ekoizpena bultzatu nahi da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

BERTAKO PRODUKTUAK MERKATURATZEKO ETA KONTSUMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

ZIOEN AZALPENAK

Beasaingo Udalaren eskumenen artean "barne merkataritza antolatzea eta kudeatzea dago. Zehatza esanda merkatu, hornidura-merkatu, azoka lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea..." dago.

Udalaren helburua da hileroko lehenengo larunbatean izaten den azoka sustatzea eta horrela bertako ekoizleei nahiz kontsumitzaileei, bertako produktuak zirkuitu laburren bitartez merkaturatzeko eta kontsumitzeko aukera ematea.

Laguntza hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (7. artikulua) euskararen erabilerari buruzko eskumenak ematen dizkie toki-erakundeei eta udalerriei, eta 17,34) artikulua, berriz, udalerriaren berezko eskumentzat hartzen du barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2023-2025ko dirulaguntzen plan estrategikoa (6.Garapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta tokiko turismoa sustatzea, 6.2. lerroan: Udalerriko Merkataritza sektorea bultzatzea. Hurbileko produktuen merkataritza eta salmenta sustatzea.

Udalak urtero ateratzen ditu dirulaguntza horiek larunbateko azoka sustatzeko. 2023an 7 dirulaguntza eman ziren. Aurreikusitako kreditua nahikoa izan zen eta ez zen kreditua handitu beharrik izan. Beraz, egiaztatu da oinarri horiekin bat egin dela helburuaren lorpenarekin.

1.XEDEA

Udalaren helburua da hilabete hasierako larunbateko udal merkatua tokiko produktuekin sustatzeko laguntzak arautzea.

Laguntza hauen bidez, hilean behin izaten den azokara etortzen diren ekoizleei lagundu nahi da, horiek hilero gutxieneko diru kopuru jakin bat izanez eta bertako ekoizleen eta lana balioan jarritz eta bertako eta garaiko produktuen kontsumoa areagotuz.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu duen dirulaguntza finantzatzeko Udalak 7.000 euroko kreditua aurreikusia du 2024ko aurrekontuan 0243.471.431.20.01 aurrekontu-sailean.

Gehieneko zenbateko osoaz gain, aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3.ESKATZAILEAK

Hilero lehen larunbatean izaten den azokara bertako produktuak saltzera etortzen diren ekoizleak eta artisauak.

Hauek ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

- Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.

- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.

- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.

- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

- Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeke eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

4. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

Postu bakoitzeko onuradun bakarra izan ahalko da. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da honako baldintza bereziak betetzen dituen:

-Azokan bertako produktuen salmenta (hilabete hasierako lehen larunbatean), beti ere honako baldintzak betetzen dituen:

- a) Fruta eta barazki salmentetan, garaian garaiko produktuak eskainiko dira. Gutxienez: 3 produktu.
- b) Bestelako produktuetan ez da kopuru minimorik ezarriko, hau da: gazta, eztia, ogia...
- c) Seihilekoan, gutxienez 3 larunbatetan saldu behar dute. Horren jarraipena Udaleko teknikari batek egingo du.
- d) Udal Ogasunarekiko, Foru Aldundiko Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharretan egunean egotea.

5.DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Ekoizle edo artisau bakoitzak azokan parte hartutako larunbat bakoitzaren truke 60€ jasoko ditu.

6.DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Merkataritzako saileko teknikariak, hilero azokara etorritako ekoizleen zerrenda izango du, eta ekoizleek sinatu beharko dute. Hori azokan saldu izanaren frogagiria izango da.

Laguntza horiek emateko aurreikusitako kreditua handitzeko aukera kontuan hartuta 4. Artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie, eta 5.artikuluan adierazitako zenbatekoa izango da.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira dirulaguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

7.ESKAERAK AURKEZTEA

- Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2024-11-30ean amaituko da.

- Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, ahal izanez gero, edo aurrez aurre iGunera joanda.

-Aurkeztu beharreko agiria:

Agiri hau erantsi beharko zaio dirulaguntzak eskuratzeko eskabideari.

-NAren fotokopia

8.DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

9.DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA EDO EZ BETETZEA

-Emakidarako emandakoak betetzen ez badira, horiek itzultzeko prozedura hasiko da.

10.DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

11.APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

12.EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Oinarri hauek administrazio-izaera daukate, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-

helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.”

- BEASAINGO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA. 2024OIME0002

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

1. Lehenengo aldiz 2021eko abenduaren 31ko GAOn argitaratu ziren 2022rako etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak ematea arautu zituzten oinarri erregulatzailleak.
2. Merkataritza azpisaileko arduradun teknikoak 2024ko otsailaren 13an egindako txostena.
3. Udalak 2023.urtean 4 laguni eman zien dirulaguntza hau eta 24.947,42 euroko dirulaguntza eman zuen kontzeptu honetarako.

LEGERI APLIKAGARRIA

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa,17.artikulua, 34.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra.
- Dirulaguntzak arautzen dituen udal-araua.
- 2023-2025erako Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

PROPOSAMENA

Beasaingo Udalak 18-35 urte bitarteko gazteei eta mugikortasun urria duten pertsonei diru laguntza eman nahi die baldintza batzuek betetzen dituen etxebizitza alokatzeko, beraien baliabide ekonomikoak kontuan hartuta. Hori dela eta, Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo Udalak 18-35 urte bitarteko gazteei eta mugimendu urria duten pertsonei etxebizitza alokatzeko diru laguntza ematea.

Bigarrena: Dirulaguntzak hauek izango dira:

- Pertsona bakarraren kasuan

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu gastuaren %	Gehieneko dirulaguntza
26.000 eta 28.000 euro	%20	100 euro

<i>bitartean</i>		
24.000 eta 25.999 euro bitartean	%30	150 euro
22.000 eta 23.999 euro bitartean	%40	200 euro
21.999 euro arte	%50	250 euro

-Bizikidetza-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute

<i>Diru sarrera gordinak eurotan</i>	<i>Alokairu gastuaren %</i>	<i>Gehieneko dirulaguntza</i>
33.000 eta 39.000 euro bitartean	%20	100 euro
30.000 eta 32.9000 euro bitartean	%30	150 euro
26.000 eta 29.900 euro bitartean	%40	200 euro
25.900 euro arte	%50	250 euro

Gehieneko dirulaguntza hilean 250 eurokoa eta 12 hilabetekoa izango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da inolako interbentziorik izan.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV), Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN
PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

“BEASAINGO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK.

ZIOEN AZALPENA

Beasaingo Udalak, etxebizitzaren alorrean, gazteei eta mugikortasun urria dutenei etxebizitza alokatzeko erraztasunak ematea du helburu, beraien alokairuaren kostua eta errentarien baliabide ekonomikoak kontuan hartuz.

1.- XEDEA

Laguntza hauen xedea eskaera egiten duten errentarien ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea da, horretara bideratuak dauden gainerako laguntzetarako dirulaguntzarik jasotzen ez badute (Bizigune, Gaztelagun, Etxebizitzetarako Prestazio Osagarria edo alokairu kontzeptuan Gizarte Larrialdietarako Laguntza).

Laguntza hauek 2023-2025 urteetarako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan daude aurreikusita, zehazki 1.helburu estrategikoan: Gizarte-ekintza sustatzea eta 1.7.lerroan: 18-35 urte bitarteko gazteentzat eta mugikortasun urriko personentzat etxebizitza hutsen alokairua sustatzea.

Laguntza hauen bidez gazteen emantzipazio bidean lagundu nahi da, mugikortasun urriko pertsonen oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitzak izatea sustatu nahi da eta etxebizitza hutsen merkaturako sarbidea sustatu.

Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin aurretik aipatutako helburua lortzen lagundu dela, izan ere, 2023.urtean lau pertsonen eskatu zuten dirulaguntza hau eta denei eman zaie. Horietako hiru 18-35 urte bitarteko gazteak izan dira eta beste bat ezgaitasun maila onartuta duen persona bat. Eta helburuari laguntzeko modua da dirulaguntza hau eskatzen dutenek udalerriko alokairuko etxebizitza honetan bizitzeko baldintza bete behar dutela nahitaez eta horrela beraien emantzipazioa bermatzen dela.

Kontzeptu honetarako aurreikusitako kreditua nahikoa izan zen.

2.- FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 25.000,00 euroko kreditua aurreikusita du, horretarako sortutako aurrekontu honetan: 0260.480.337.20.01 alokairurako dirulaguntzak.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa (25.000,00 €) handitu ahal izango da aldaketaren zenbatekoa dela eta eskumena esleitura duen organoaren aldetik baina beti ere aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik. Horrek ez du beste deialdirik ekarriko.

3. - ONURADUNAK

Behean azaltzen diren modalitateetan sartzen diren pertsona edo bizikidetzak unitateek eta 4. Artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituztenek eskatu ahaliko dute dirulaguntza.

."A modalitatea": 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteak; adin hori izan behar dute eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

."B modalitatea": Mugikortasun urriko pertsonak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailak egindako txostenean 7tik 15 puntura edo A,B,C letrak dituztenak.

Dirulaguntzaren eskatzailea Aldundiaren txosten teknikoaren zain badago, eskaera onartu egingo da, baldin eta txosten hori dirulaguntza emateko epea amaitu baino lehen aurkezten badute.

4.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzen eskatzaileek alokairurako eskatzen den alokairuko etxebizitza librean erroldatuta egon beharko dute. Hala ere, laguntzak jasotzeko, Beasainen urtebetez etenik gabe erroldatuta egon dela egiaztatuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Eskabidea interesdunak egin dezake, edo bizikidetzak-unitateen kasuan, hura osatzen duen edozein pertsonak.

Bizikidetzak-unitatea da etxebizitza edo bizileku berean bizi diren bi pertsonak edo gehiagok osatzen dutena. Pertsona horiek elkarrekin lotzen dira ezkontzaz edo harreman iraunkorrez, bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunez edo bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunez edo familia-harrera iraunkorrez edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko familia-harreraz.

Eskatzaileek alokairu kontratua izan behar dute.

Errentaren ordainketa banku-transferentzia edo kreditu entitatearen bidezko ordainketa aginduaren bidez egin behar da.

Eskatzaileek, bizikidetzak unitateko kideek barne, ezingo dute jabetzan etxebizitzarik izan. Horretarako, ez dira kontuan hartuko indibisoko titularren kasuak.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute indibisoko etxebizitza baten titularkide badira (herentzia, donazioa...).

Bizikidetzak-unitatearen edo eskatzaileen diru-sarreraren muga oinarrien 9. apartatuan zehaztutako kopurua baino txikiagoa izatea.

Eusko Jaurlaritzak "Gaztelagun programaren" bidez laguntza jaso dutenen eskaerak ez dira izapidetuko.

Honako hauek ere ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak (bizikidetza unitateko kideek barne), edo erakundeak.
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak (bizikidetza unitateko kideek barne), edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigorituak izan direnak (bizikidetza unitateko kideek barne), edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.
- Eskatzaileek, bizikidetza unitateko kideek barne, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudeneak.

5.- ETXEBIZITZEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Beasaingo udalerrian egon beharko du eta izaera librekoa izan behar du.
2. Etxebizitzak, OHZn horrela kalifikatuta egoteaz gain, hurrengo gela eta zerbitzuak izango ditu.

“A” modalitatean:

- a) Sukaldea, elikatze-iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.
- b) Dutxa edo bainu ontzia duen bainugela.
- c) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volteko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin edo/eta gas hornidura.
- d) Iturriko ura izatea.
- e) Bizikidetza unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat izatea.

“B” modalitatea:

“A modalitatean” a), c), d) eta e) apartaduetan izendatutakoez gain

- a) Komun egokitua izan behar du
- b) Arkitektura-oztoporik gabeko eta irisgarritasun-araudira egokitutako eraikina izatea.

6. - BAZTERTZEAK

1. Babes publikoko etxebizitzak, araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak (sozialak), orokorrak eta tasatuak (autonomikoak).

2. Bizigune programari atxikita dauden alokairuan dauden etxebizitzak.

3. Urteko deialdian zehaztuko den gehieneko alokairu-gastua gainditzen duten etxebizitzak.

4. Urtebetekoa baino iraupen txikiagoa duten alokairu-kontratuak.

5. Logelen alokairuak

6. Berralokairuak

7. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak, garajeak, higiezin edota beste leku batzuk.

7.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntzak 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie.

Dirulaguntzaren ordainketa lau zatitan zatikatuta egingo da:

- Lehenengo ordainketa deialdiaren ebazpena egin ondoren izango da.

- Hurrengo ordainketei dagokienez, hiru hilabetetik behin egingo dira, aldi horiei dagokien alokairuaren ordainketa egiaztatzen den guztietan.

Inongo kasuan ez da onartuko alokairuaren ordainketaren agiria 2024-12-15 baino geroago aurkeztea.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.

Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean.

Ordainketa, Alkateak diru laguntzaren ebazpena ematen duenetik hilabeteko epean egingo da.

8. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak ez dira bateragarriak izango helburu bererakoa emandako beste laguntza batzuekin.

“Emantzipa” dirulaguntzekin bateragarriak izango dira.

9. - ESKATZAILEAREN DIRU-SARRERAK, ALOKAIKUAREN GEHIENEN
GASTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA KALKULUA

- Diru-sarrerei dagozkien gehieneko mugak hauek izango dira:

-28.000 euro gordin urtean, bizikidetzaren unitatea pertsona bakar batez osatua baldin badago.

-39.000 euro gordin urtean, bizikidetzaren unitatea bi pertsona edo gehiagok osatuta baldin badago.

Norbere kontura lan egiten dutenei gutxienez 22.000 euroko diru-sarrerak dituztela kontabilizatuko zaie.

- Alokairu-gastuei dagokienez gehieneko kopurua: hilean 750 euro ezingo da inolaz ere gainditu.

- Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko era:

Alokairu partekatua denean, onuradun bakoitzari emateko laguntzak kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

- Dirulaguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

-Pertsona bakarraren kasuan:

Diru sarrera gordinak eurotan

1. 26.000 eta 28.000 euro bitartean

Alokairu gastuaren %20

Gehieneko diru laguntza: 100€

2. 24.000 eta 25.999 euro bitartean

Alokairu gastuaren %30

Gehieneko dirulaguntza :150€

3. 22.000 eta 23.999 euro bitartean

Alokairu gastuaren %40

Gehieneko dirulaguntza: 200€

4. 21.999 euro arte

Alokairu gastuaren %50

Gehieneko dirulaguntza: 250€

-Bizikidetzaren unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute:

Diru sarrera gordinak eurotan

1. 33.000 eta 39.000 euro bitartean

Alokairu gastuaren %20

Gehieneko dirulaguntza: 100€

2. 30.000 eta 32.999 € bitartean

Alokairu gastuaren %30

Gehieneko dirulaguntza: 150€

3. 26.000 eta 29.999€ bitartean

Alokairu gastuaren %40

Gehieneko dirulaguntza: 200€

4. 25.999€ arte

Alokairu gastuaren %50

Gehieneko dirulaguntza: 250€

Dirulaguntza gehienez hilean 250€ eskaera bakoitzeko izango da eta gehienez 12 hilabeteko epealdi baterako.

10. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Aurkeztu beharreko dokumentazioa hau izango da:

1. Eskaera orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta
2. Zinpeko aitortpena
3. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena.
4. Alokairu kontraturaren hileroko ordainketaren agiriak.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken erregistroan errentamendu-kontratuen fidantza jarri izanaren egiaztagiria.
6. Estatu osoan etxebizitza baten jabe ez izatearen ziurtagiria, Jabetza Erregistroak emana, laguntzaren eskatzaileei dagokienez.
7. Etxebizitza baten titularkide izanez gero, Jabetza-erregistroaren kopia soila aurkeztu beharko da.
8. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena, azken ekitaldi ekonomikoari dagokiona.

9. PFEZaren aitorpena egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:

-Dagokion ekitaldian PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.

-Besteren konturako langileak badira:

10T ziurtagiria (PFZEren atxikipenen ziurtagiri ofiziala).

-Pentsiodunak edo bekadunak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne): ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.

-Langabezia egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbidek igorritako inskripzioaldien txostena izeneko ziurtagiria.

10. Beste diru sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziko da) izanez gero eta/edo beste erakundeetan diru laguntza eskatuz gero, hori adierazten duen zinpeko aitorpena.

11. Oinarri hauen 5.eta 6. Artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela zinez aitortu beharko dute eskatzaileek.

12 .Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Udalak udalerriko biztanleen errolda kontsultatuko du eskatzen diren eta bete behar diren datuak betetzen direla ziurtatzeko.

11.DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeke eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

4. Erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

12. OINARRIAK ARGITARATZEKO ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAO on argitaratuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

-Noiz: Eskabideak oinarriak GAO on argitaratzen diren hurrengo egunetik 2024-09-30 arte.

-Moduak:

- Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta, aurretiko txanda eskatuta. Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.
- Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta.

13. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kontratuaren errentamendua urtea igaro baino lehen suntsiarazten bada, suntsiarazpen-egunera arte ordaindutakoa itzultzeko eskatuko da.

14. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

15. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

16. HELEGITEAK

Udalak ahalmena du oinarri hauek interpretatu eta ebazteko, baldin ete horien inguruan desadostasunik sortzen bada.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan.”

Ezagutzera eman da Herritarrek batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK:

1. Beasaingo Udalak Merkataritza Biziberritzeko Plana du.
2. Plan horretan merkataritza sustatzeko hainbat jarduera proposatzen dira, besteak beste, lokal hutsak betetzen laguntzeko dirulaguntzak ematea.
3. Merkataritza azpisaileko arduradun teknikoak 2024-02-13an egindako txostena.
4. 2023an 18 merkatariri eman zaie dirulaguntza.

Xede hau betetzarren Udalak bi dirulaguntza lerro idatzi ditu:

1. Oraindik martxan dagoen edo hutsik dagoen lokala alokatzeko dirulaguntzak.
 - Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
 - Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean.
2. Oraindik martxan dagoen edo hutsik dagoen lokala erosteko dirulaguntzak.
 - Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

LEGERI APLIKAGARRIA:

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.

-38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

-Dirulaguntzak arautzen dituen Udal araua.

-Beasaingo Udalaren 2023-2025 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

PROPOSAMENA:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza deialdia egitea honela baldintzatuta egongo da: emango diren dirulaguntzen hiru ekitaldi ekonomikotan ordaintzeko behar diren kredituei behin betiko onartuta egon beharko dira.

Udalerriko merkataritza sustatze aldera Herritarrek Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik: Merkataritza sektorea biziberritzeko dirulaguntzak emateko oinarrien proposamena onar dezala.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da inolako interbentziorik izan.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV), Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

MERKATARITZA SEKTOREA BIZIBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

ZIOEN AZALPENA

Oinarri hauen helburua merkataritza sektorea biziberritzea da, hutsik dauden lokalak martxan jartzeko laguntzak emanez eta eskualdatzen denean negozioen jarraipena bultzatuz.

Laguntza horien bidez, establezimendu bat erosteko, alokatzeko edo eskualdatzeko orduan jarduerak irekitzeak dakartzan gastuak gutxitzen lagundu nahi da eta horrela udalerriko establezimenduak irekita mantentzea bultzatuz.

1.XEDEA

Oinarri hauen xedea merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da. Hau da, merkataritzako lokal bat erosi/alokatu edo eskualdatzeko dirulaguntzak emateko prozedura arautzea.

Laguntza hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17,34) artikulua udalerraren berezko eskumenez hartzen du barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2023-2025ko dirulaguntzen plan estrategikoa (6. Garapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta tokiko turismoa sustatzea. 6.2. lerroa: Udalerriko merkataritza sektorea bultzatzea.

Udalak urtero ateratzen ditu dirulaguntza horiek merkataritza biziberritzeko eta irekitako establezimenduak mantentzearen. 2023an 18 dirulaguntza eman ziren. Aurreikusitako kreditua nahikoa ez zen izan eta kreditu aldaketa eskatu zen. Beraz, egiaztatu da oinarri horiekin bat egin dela helburuaren lorpenarekin

2.FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 30.000 euroko kreditua aurreikusia du, honetarako sortutako kontu-sail honetan: 1.0243.481.431.50.01

Gehieneko zenbateko osoaz gain, aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3.ESKATZAILEAK ETA DIRULAGUNTZA MOTAK

Beasainen merkataritza-jardueraren bat abiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei zuzendurik dago deialdia.

Hauek ezingo dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

-Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.

-Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.

-Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriaragatik gertatutakoak barne.

-Foru Ogasunekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

-Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

-Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

Beasaingo Udalak dagoeneko itxita dagoen lokala eskuratzeko edo alokatzeko edo oraindik irekita dauden baina itxeko asmoa duten enpresen transmisioan laguntzeko dirulaguntzak emango ditu.

Bi dirulaguntza daude:

1.Lokala alokatzea:

- Oraindik martxan dagoen negozio batekin jarraitzeko
- Hutsik dagoen lokal batean merkataritzako jarduera bat gauzatzeko

2.Lokala erostea:

- Oraindik martxan dagoen negozio batekin jarraitzeko
- Hutsik dagoen lokal batean merkataritzako jarduera bat gauzatzeko

1.- LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK

Baldintzak:

- a) Lokalen kokapena eta ezar daitezkeen jarduerak.

Negozioak Beasaingo udalerrian kokatuta egon behar du. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan: txikizkako merkataritza eta zerbitzu jarduerak.

- b) Betebeharreko baldintzak.

Negozio horrekin jarraitu nahi duten ekintzaileek egunean izan beharko dituzte Administrazio publikoekiko zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzakekikoak.

c) Dirulaguntzaren zenbatekoa eta iraupena

Jarduera garatuko duenak establezimendua alokatuz gero, gehienez eskaera egindako lehen hiru urteetako alokairu-gastuak diruz ordainduko zaizkio, betiere aurrekontu egokia eta nahikoa egonez gero.

- Eskaera egiten den lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Eskaerak egiten diren bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean. Horretarako, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko abenduaren 15a baino lehen, urte horri dagozkion fakturak aurkeztu beharko ditu.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta argindarraren gastuak etab.)

Udalaren deialdi bakoitzean emandako dirulaguntza gehienez ere 12 hilabeteko alokairu-gastuei dagokiena izango da, eta eskaera bakoitza egiten den urte naturalari soilik dagokiona; nolanahi ere, eskaera eta/edo kontratua egiten den egunetik aurrera zenbatuko da.

Hurrengo bi urtetan dirulaguntza jaso ahal izateko, urtero aurkeztu behar dira eskaera eta dokumentuak (bideragarritasun plana edo proiektua izan ezik), eta urterokoen zenbatekoa, berriz, aurreko paragrafoan zehaztutakoa

2.- LOKALA EROSTEKO DIRULAGUNTZAK

Lokala erosteko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak, lokala alokatzeko jarritako baldintzen berdinak dira.

a) Zenbatekoa

Dirulaguntza higiezinaren katastro-balioaren %4, gehienez ere, 2.000€.

4.DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA ORDAINKETA

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak azterzeaz eta ebaluatzeaz. Dirulaguntza emateko, jarduerak udal lizentzia eta baimen egokiak dituela egiaztatuko da. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio behin dokumentuak aurkeztu ondoren.

Ordainketa hilabeteko epean egingo da, Alkatetzak dirulaguntzaren aldeko ebazpena ematen duenetik kontatzen hasita.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ordainduta, onuradunak betebeharreko baldintzak betetzen ez baditu, eskuratutako dirulaguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

5.DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

6.ESKAERAK AURKEZTEA.

-Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2024-11-30ean amaituko da.

-Modua:

Dirulaguntza eskatzen duten ekintzaileek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez edo aurrez aurre iGunean l. eranskinetako ereduaren arabera.

- Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera inprimakia behar bezala beteta.
- Pertsona fisikoak: NAren fotokopia.
- Pertsona juridikoak: IFKren kopia, legezko ordezkariaren NA eta ordezkatzeko ahalmena duela ziurtatzen duen agiria.
- Dirulaguntzen onuradun izateko debeku egoeretan ez egotearen erantzukizun adierazpena.
- Alokairuaren kontratuaren kopia edo salerosketaren eskritura publikoa dirulaguntza eskatzen den egunean erregistratutako erregistroaren informazioko ohar sinplearekin batera.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren altaren kopia.
- Jarduera berria irekitzen denean, bideragarritasun plana edo proiektuaren azalpen txostena. Bertan puntu hauek jorratuko dira, besteak beste: burutuko den jarduera, merkatua, bezero potentzialak, helburuak eta alderdi berritzaileak.
- Alokairuaren kasuean urte horretako alokairuaren fakturak eta ordainagiriak.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak zuzenean kontsultatuko du, pertsona edo erakunde interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, foru-ogasunetan eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan, saria jasotzen duena foru-ogasunen eta Gizarte Segurantzaren

aurrean dituen betebeharren ordainketan egunean dagoela.

7. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA EDO EZ BETETZEA

-Baldintzak aldatzen badira (lehenengo alokairu-kontratua eta gero erosketa), dirulaguntzaren berrikuspena egingo da.

-Emakidarako emandakoak betetzen ez badira, horiek itzultzeko prozedura hasiko da.

8.DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

9.APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

10.EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.”

- MERKATARITZA ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEENTZAT.
2024OIME0006

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.Udalak merkataritza sustatzeko helburuarekin 2021.urtera arte Bareak Merkataritza elkartearekin hitzarmena zuen bertako merkataritza sustatu eta indartzeko eta oinarri hauen xedea ere berdina izango litzateke, bertako merkataritza indartu eta bide batez, bertako ekonomia sustatzea.

2. Merkataritza azpisaileko arduran teknikoak 2024-02-13an egindako txostena.

3. Udalak 14.000 euroko dirulaguntza eman zion Bareak Merkataritza elkarteari kontzeptu honetarako.

Xede hau betetzearren Udalak Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkarteei dirulaguntza emateko oinarri hauek idatzi ditu:

-14.000€-ko dirulaguntza emango du bertako merkataritza sustatzeko eta horretarako egingo diren jarduerai aurre egiteko. Jarduera horiek helburu hauek beteko dituztenak izango dira:

- *Ostalaritza sustatzea.*
- *Merkatari elkartera bazkide berriak erakartzeko eta lehengo bazkideak mantentzeko ekintzak.*
- *Herrian erosteko sentiberatze lanetarako ekintzak.*
- *Herria dinamizatzeko ekintzak.*
- *Merkataritzarekin zerikusia duten formazio-saioak.*
- *Eraldaketa digitala sustatzeko ekintzak.*
- *Bezero berriak erakartzeko eta lehengoak fidelizatzeko ekintzak.*
- *Elkartearen komunikazioa, publizitatea eta irudia lantzeko ekintzak.*
- Horrela elkartea indartuz.*

LEGERI APLIKAGARRIA

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.

-Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Dirulaguntzak arautzen dituen udal-araua.

-2023-2025erako Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

PROPOSAMENA

Udalerriko merkataritza sustatze aldera Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkar-teentzat dirulaguntzak emateko oinarrien proposamena onar dezala.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai dirulaguntza hauetan eta baita ere aurrekoetan abstenitu egingo gara iruditzen zaigulako behin eta berriz batzordeetan proposamenak egiten direla eta oso margena gutxi geratzen dela aldaketak egiteko. Behin eta berriz lan egiteko modua errepikatzen da. Diru laguntza hauek azken lau urteetan berdinak izan dira. Batzordeetan proposamenak egiten ditugu eta askotan apuntatzen dira eta bere horretan geratzen dira. Beti esaten da hurrengo urterako aztertuko direla. Batzordeak oposiziokoak gure lana egiteko dira. Aste bat lehenago proposamena jasotzen dugu, guk gure mahai gaineratzen dugu eta airean geratzen dira. Guk dugun sentsazioa da ez dugula aukerarik gure planteamenduak garatzeko. Beste gauza da aztertzea eta desadostasuna egotea. Hori zilegi da, baina ez airean geratzea. Oinarriak egokitu egin behar dira. Hori pasatu da, adibidez, Igartza literatura bekarekin, 4.000 € gehiago jarri dira, baina etxebizitzetako alokairuekin ez. “Emantzipa” programak 24 hilabeteetan laguntzen du guk, aldiz, 12 hilabeteetan. Merkataritza berdin. Ba daude enpresak esaten dutenек egonkortasun planak

lehenengo 3 urteetarako egite direla. Gu, aldiz, jarraitzen dugu lehenengo bi urtetan laguntzen eta hirugarrenean gutxiago. Ez dira egokitzen ez dagoelako eztabaida gunerik. Urtetik urtera dirulaguntzak errepikatu egiten dira hausnarketarik egin gabe. Ekoizleena hiru urte daramagu eskatzen 50 € horiek igotzeko bizia garestitzen ari delako. Gaur jakin dugu gure proposamena onartu egin dela eta pozten gaitu, baina lan egiteko modua aldatu egin beharko litzateke, benetako oposizio kolaboratzailea izatea nahi badugu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Eskertuko nizukeena da puntu bakoitzaren bukaeran botoaren azalpena emateko. Ez dut egokia ikusten momentu horretan ezer esan gabe abstenitzea eta gero denak batera botatzea. Orian bota duzun bezala ni ere saiaturik naiz puntuaz puntu erantzuten. Batzordean proposamenak puntuaz puntu egin ziren eta proposamen horiek erantzun egin dira. Aztertzea kosta egiten da. Guk proposatzen duguna teknikarien adostasunarekin da eta beraiek eta guk markatutako irizpide batzu baitan. Zuek beste proposamen batzuk egiten dituzuenean, zuen oinarriak izango dituzue baina guk batzordera oinarri hauek eramaten ditugunerako, baditugu gure irizpideak.

Berdintasunen arloko dirulaguntzen inguruan: Eskatu zenuten irizpideen puntuaketa aldatzea. Zuek badakizue orain oinarriak diren hauek lehen zirela emakume elkarte feministei ematen ziren izendun dirulaguntzak. Diru laguntza legea tarteko egin izan duguna da hein batean izenduna ziren horiek oinarrietara bilakatzea. Oinarri horiek elkarrekin adostu zirenean, beraien beharretara egokitu ziren. Beraz, askotan irizpideak ez badira aldatu da egun beharrei erantzuten diren oinarriak ditugulako.

Ekoizleei dirulaguntza igotzea. Gure ustetan horrek ez du bermatuko ekoizle gehiago etorriko direnik, baina proposamena aztertu eta erantzun da, beste egindako proposamenei erantzun zaizuen bezala.

Alokairuen inguruan 12 hilabete aurreikusten dira. Zuek gehiago eskatzen dituzue, baina 12 hilabete mantendu da horren atzean ere badagoelako oinarri bat. Dakizuen moduan udal hau etxebizitzaren inguruko azterketa bat egiten hasi da. Hori egiten denean eta datorren urteari begira, etxebizitzako ekintza osagarriak planteatzeko aukera izango dugu. Hori izan da arrazoia 12 hilabete aldatu gabe mantentzearena. Baita ere beste kolore guztietako herrietan gazteentzako alokairua 12 hilabetekoa delako.

Puntu bakoitza argudiatu behar da eta botoa autuaren arabera izan behar du.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk erabaki genuen horrela egitea, baina nahi baduzu banan-banan arrazoituko dizut.

Berdintasuneko oinarriak: Puntuazio aldaketa proposatu genuen. Zuk esan duzu behar batzuei erantzuten diela. Gure ustetan ASMUBEentzat zuzendutako diru laguntzak dira. Beste elkarte bat suertatzen bada, agian bazkide kopuru eta antzinasunaren arabera puntuak lortzea ez da hain zilegi. Hori da gure irakurketa, zuena ez bada, ados.

Etxebizitzan alokairua: Ez zaigu erantzun zergatik 12 eta ez 24 edo 36. Bidali zaiguna da taula bat behatokiak egindako batz besteko hileroko errentarena. Ez zaigu beste azalpenik eman. Hori ez dugu ikusten beste hausnarketa bat egin denik.

Horrela egitea erabaki dugu beti berdina gaudelako. Proposatzen dugu zerbait eta ez dakigu erantzunik jaso behar dugun. Orokorrean dirulaguntza guztien azterketa egitea izango lizateke.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Oraingoan egindako eskaerak idatziz ere erantzun zaizkizue.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean gure zalantzak mahai gaineratzen ditugu eta normalean ez zaigu erantzuten guk ez badugu insistitzen. Astelehenean berriro gure zalantzak zerrendatu genituen eta horiei erantzun zaizkigu. Oraindik ere zalantza batzuk geratzen zaizkigu eta berriro ere idatzi beharra izan dugu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Orduan erantzuna jaso duzue. Ez esan hemen sorpresa jaso duzuela ekoizleen laguntza 60 €tara igo direlako.

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gaur eguerdiko ordubatak inguruan jaso dugu e-maila Igartzari buruzko aldaketekin. Ulertuko duzuen bezala ez digu denbora ematen aztertzeko.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Oraingoan zuk ere badakizu Herritar sailean zenbat oinarri ditugun eta zenbat teknikari dauden honen inguruan. Ikusi besterik ez dago igorritako dokumentazioa zein luzea den. Horrezaz gain aipatu nahiko nuke aste honetan Herritar sailean pertsonal arloari dagokionean ez da asterik hoberena izan, osasun eta beste arazoak izan direla eta. Guzti honen atzean teknikarien lana ere badago.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bai teknikarien lana dago eta irizpide politikoak ere bai.

Gaia behar adina eztabaidatu ondore, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da.

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

“BEASAINGO UDALERRIAN MERKATARITZA ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17.1 artikuluan, udalerraren eskumen propio gisa aurreikusten du:

34) Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

Horretan oinarrituta, Udalaren helburua da tokiko merkataritza sustatu eta indartzea.

Horrekin lortu nahi dena da:

- Bezeroak fidelizatzea eta bezero berriak erakartzea.
- Herritarrek udalerriko establezimenduetan erosteak duen garrantziaz jabetzeko sentiberatze lana egin.
- Herria dinamizatzea eta bide batez, ekonomia sustatzea.

Hori guztia sustatu ahal izateko, dirulaguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira araudi hauen babesean:

-Diru-laguntzei buruzkoa 38/2003 lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/Errege dekretuaren bidez onartua.

-Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14GAO).

-Beasaingo udaleko 2023-2025 urteetarako Dirulaguntzen Plan estrategikoan, zehazki 6. Helburu estrategikoan: Garapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta tokiko turismoa sustatzea eta 6.2. lerroan: Udalerriko merkataritza sektorea bultzatzea.

2023an, udalerrian dagoen elkarte bakarra izan zen laguntzen eskatzaile eta onuradun bakarra. Elkarte horrek egiten duen lan garrantzitsua kontuan hartuta, komenigarritzat jotzen da dirulaguntza horiek argitaratzen jarraitzea.

1.XEDEA

Oinarri hauen xedea hau da:

-Beasaingo udalerrian merkataritza arloan lan egiten duten elkarteei (merkataritza sustatzeko jarduerak gauzatzeko), dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2.FINANTZIAZIOA

Deialdi honetarako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 14.000 €-ko kreditua aurreikusia du aurrekontuko kontu-sail honetan: 0243.481.430.10.01

“ Dirulaguntzak: Merkataritza”.

3.ERAKUNDE ONURADUNAK

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte, aldez aurretik eskatuta, herrian helbideratutako eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen erregistroan edo Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa eta Sindikatu Elkartearen Erregistroan inskribatutako merkatarien elkarteek.

Erakunde horiek egunean izan beharko dituzte Gizarte segurantzarekiko eta Udal eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak.

Hauek ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradunak izan:

- Lege honetako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) jasotako egoeran dauden pertsona edo erakundeak.

- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.

- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.

-Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

-Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

-Beasaingo Udala Euskadi NISAE-ko administrazioen Elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Dirulaguntzaren eskatzaileak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Udalerriko merkataritza indartzeko ekintzak, hala nola:

- Ostalaritza sustatzea.
- Merkatori elkartera bazkide berriak erakartzeko eta lehengo bazkideak mantentzeko ekintzak.
- Jendeak herrian erosteko ekintzak (sentiberatze kanpainak, iragarki publizitarioak...)
- Herria dinamizatzeko ekintzak.
- Merkataritzarekin zerikusia duten formazio-saioak.
- Eraldaketa digitala sustatzeko ekintzak.
- Bezero berriak erakartzeko eta lehengoak fidelizatzeko ekintzak.
- Elkaratearen komunikazioa, publizitatea eta irudia lantzeko ekintzak.

5. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

Dirulaguntzak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak:

- a) Hizkuntza irizpideak. Diruz lagundutako bere jardunean argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerako agiriak euskaraz behintzat idatzi eta ezagutzera eman beharko dira. Ahozko adierazpenetan euskarari emango zaio lehentasuna.
- b) Generoa eta berdintasuna. *1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena hartuko da kontuan.*
- c) Publizitatea. Beasaingo Udalaren aipamena egingo da kolaboratzaile gisa.
- d) Dirulaguntza ematea arrazoitu duten helburua betetzea, egitasmoa/ekintza burutzea eta gauzatu dela egiaztatzea Udalaren aurrean.

Edozein arrazoirengatik ekintzaren bat gauzatzen ez bada, Merkatori Elkarateak itzuli beharko du ekintza horretarako emandako dirulaguntza.

e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatuko dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideak lortu izana jakinaraztea Beasaingo Udalari.

5.HAUTAKETARAKO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAZIOA

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, hau da: aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Horrela, kasuan kasu finkatutako irizpideak jarraituz, diruz lagundutako jardueren kalitatea eta bideragarritasuna bermatuko duen laguntza kopurua hautatuko da soilik.

Laguntza horietarako gehieneko zenbatekoa (14.000€) aurkeztutako eskaeren proportzioan banatuko da.

Proiektuak behar bezala baloratzeko ondorengo hautaketa irizpideak egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Gehienera ere 100 puntu emango dira.

Gutxienez 30 puntu lortzen dituzten proiektuek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza.

Banaketa-eta puntuazio-irizpideak:

Dirulaguntza emateko garaian, ondoko irizpideak baloratuko dira:

a) Proposatutako programaren ezaugarriak: 60 puntura arte, honako alderdien arabera:

a.1)Merkataritza sustatzeko programaren informazio-xehetasun maila. Lortu nahi diren helburuak, parte-hartzaileak erakartzeko modua, ekintzen iraupena, lortu nahi den eragina (helburuak, adierazleak...)... 20 puntu.

a.2) Programan, burutzea aurreikusten diren ekintzak anitzak eta ezberdinak izatea. Horiek modu honetan baloratuko dira: 15 puntu

- 2 jarduera desberdinei dagozkienak badira: 5 puntu

- 4 jarduera desberdinei dagozkienak badira: 10 puntu.

- 5 jarduera edo gehiagori dagozkienak badira: 15

a.3)Proposatutako ekintzak beste laguntza-eskatzailerik batzuenak ez bezalakoak izatea.5 puntu

a.4) Programa osatzen duten ekintzetan inplikaturik egotea kopurua: 20 puntu.

-10 establezimendu baino gutxiago: 0 puntu

-11tik 35 establezimendura: 5 puntu

-36 establezimendu baino gehiago badira: 20 puntu

b) Erakunde eskatzailearen gutxienez 5 urteko ibilbidea. 15 puntu. Txikiagoa balitz, puntuazioa 0 puntukoa izango litzateke.

c) Gaitasun ekonomiko autonomia eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotzen dituzten laguntzak. 25 puntura arte

c.1) Laguntza Udalari bakarrik eskatzen bazaio:5 puntu

c.2) Bakarrik Beasaingo Udalari dirulaguntza eskatu zaion eta erakunde eskatzaile berak kofinantzatutako proiektua: 10 puntu.

c.3) Beasaingo Udalari dirulaguntza eskatu zaion proiektua eta beste erakunde publiko edo/eta pribatuekin batera kofinantzatutako proiektua: 25 puntu.

Dirulaguntzaren zenbatekoa lortutako puntuazioaren proportzionala izango da.

6.ESKAERAK. AGIRIAK.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

-Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

-Dirulaguntza eskatzen den proiektu, jarduera edo programa espezifikoaren gastu eta diru-sarreraren aurrekontua. (I eranskina)

-Erakunde eskatzailearen IFKren kopia.

-Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, dirulaguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

-Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

-Eskatzailea, dirulaguntzaren onuradun izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13.artikuluak adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena (II.Eranskina)

-Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez.

Hala ere, onuradun eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

-Laguntzea eskatzen den ekintzei edo programari buruzko txosten zehatza. Txostenak, 1990.urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15.artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon behar du.

7.ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da eta 2024ko maiatzaren 30a arte izango da.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskaera osatu gabe dagoela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari dokumentuak zuzentzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

8.PROPOSAMENAK EGIN ETA EBAZTEA

Eskatutako agiriak aztertu ondoren Kultura, Euskara eta Merkataritza azpisailaren teknikariak txostena emango du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkateari ebatz dezan.

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi behar zaio.

9. ERAKUNDE ESKATZAILEARI JAKINARAZTEKO EPEA

Alkateak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio dirulaguntzaren eskatzaileari, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.

10.ORDAINTZEKO MODUA

Dirulaguntzaren % 100 dirulaguntza emateko ebazpena eman eta hurrengo bi hilabeteetan ordainduko da.

11. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek helburu berdinerako emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

12.DIRULAGUNTZA EGIAZTATZEA

Dirulaguntza zuritzeko garaian kontuan hartu beharreko kopurua aurkeztutako proiektu osoarena izango da.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

- a) Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea euskaraz. (III Eranskina)

1.Egindako jarduerak eta egutegia.

2. Dirulaguntzaren xede den programa gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa (argazkiak, kartelak, programak...)

3. Ahal den ekintzetan beasaindar pertsonen parte hartze kopurua (emakumezkoak, gizonezkoak), ekintza bakoitzeko.

b) Justifikazio-kontu sinplifikatua: jardueran izandako gastu eta inbertsioen zerrenda xehatua hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziz. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsiaren arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira (III. Eranskina).

Fakturak aurkeztu beharko dizkio Udalari.

Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitortpena aurkeztuz jarduerarekin lotutako gastuak direla eta beti ere fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 errege Dekretuak jarraituz. (IV. Eranskina).

c) Lortutako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena. (IV. anexo).

financiación. (IV. Anexo).

d) Certificado de no haber percibido ninguna otra ayuda para el mismo fin o, en su caso, indicación especial de las ayudas recibidas (IV. Anexo)

13. EGIAZTATZEKO EPEA

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, dirulaguntzaren deialdiko urtearen hurrengo urteko urtarilaren 31rako aurkeztu beharko dira.

14. BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

15. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

16. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

17. EBAZPENAK ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.”

- XXVII. IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKA IDAZLE BERRIENTZAT. 2024OIEU0001

Ezagutzera eman da Herritarrek batzordearen proposamena.

“AURREKARIAK:

1.1994 urtean sortu zuen Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, IGARTZA LITERATURASORKUNTZAKO BEKA idazle berrientzat. Horrela jasotzen da Beasaingo Udalak eta ELKAR argitaletxeak 1994ko maiatzaren 23an sinatutako hitzarmenean. Baina, CAF enpresarekin ez zen ezer sinatu.

2.LITERATUR BEKA honek 6.000,00 euroko diru-saria izan du hasieratik CAF enpresak jarriak. 2024ko otsailaren 19an sinatutako hitzarmenean beka sariaren diru kopurua 6.000,00 €-tik 10.000,00 €-ra handitzea erabaki zen.

Saria ordaintzeko hiru erakundeek egingo duten ekarpena honakoa izango da:

- Beasaingo udalak 2.000,00 €

- CAF enpresak: 6.666,00 €

- Elkar argitaletxea: 1.334,00 €

3. Bestalde, epaimahaiak hala erabaki duenean, 3000,00 €ko akzesit saria ere eman da. Hori dela eta, Elkar argitaletxeak eta Beasaingo Udalak erdi bana ematea adostu zuten.

Ondorengo kontuan hartuta:

LEGERIA APLIKARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrek batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: XXVII. Igartza literatura sorkuntzako bekaren inguruko oinarriak onartzea.

Bigarrenik: Deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta."

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Ponemos en duda la limitación de la edad, aunque se nos ha dicho que el objetivo que se persigue con ello es promover la literatura entre los jóvenes. Nuevo escritor y joven escritor no es lo mismo. La técnica indicó que pueden admitirse como antecedentes una o dos publicaciones siempre que sean en un estilo diferente (narrativa, poesía, etc). En consecuencia la palabra "novel" sobraría.

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Idazle gazte eta berrientzat. Termino hori aldatu behar bada, aldatuko dugu. Hori izan dadila okerrik handiena!.

Wesley Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Oso positiboa iruditzen zaigu bekaren kopurua igo izana. Pena da accesit saria igo ez izana. Bi aldiz bakarrik eman da baina politta izango litzateke igotzea euskara eta kulturaren aldeko apostua delako. Suertatzen bada bi kalitate oneko aurkeztea, bigarrenari ere omenaldi hori egitea. Mereziko luke."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Aurten nolabaiteko elkarlanean artiu gara eta behar bada, abiapuntua izan da saria gehitzea ikusita merkatuan dauden inguruko sariak ere gutxi gorabehera horrelako beka izaten dutela. Kontutan hartzekoa izango da proposatutakoa."

Bozketa egin da eta aho batez onartu dira ondorengo oinarriak:

"XXVII. IGARTZA LITERATURA SORKUNTZAKO BEKA IDAZLE BERRIENTZAT. OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA

ZIOEN AZALPENA

Euskara hizkuntza gutxitua izanik, Udalaren helburua da beka honen bidez euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza ematea.

Laguntza hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (7. Artikulua) 20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen

erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).
- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (2. helburu estrategikoa: udalerriko kultura-jarduera sustatzea. 2.2 ildo: kultur sorkuntzaren sustapena).

Udalak urtero antolatzen du idazle gazteentzako lehiaketa hau literatur sorkuntza sustatzeko. 2023an epaimahaiak saritutakoari beka eman zitzaion aurkeztutako 12 proiektuen artean.

1.- XEDEA

Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, XXVII. IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA emateko prozedura arautzea da.

2. FINANTZIAZIOA

Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak 2024ko otsailaren 19an sinatutako hitzarmenaren arabera, bekaren zenbatekoa 10.000,00 eurokoa da, eta hiru erakunde horiek egindako ekarpenetatik ateratzen da zenbateko hori, hau da:

- Beasaingo Udalak 2.000, 00 €
- CAF enpresak 6.666,00 €
- Elkar argitaletxeak 1.334,00 €

3. PROZEDURA

Beka emateko prozedura norgehiagokakoa da, eta aurkezten diren eskabideak epaimahaiak ebaluatuko ditu (zazpigarren oinarria).

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

4.1. Parte hartzeko baldintzak.

- a) 35 urte bete gabe izatea.
- b) Aurretik lan argitaraturik izatekotan, helduentzako bi liburu baino gehiago ez izatea.
- c) Aurreko edizioetako Igartza Beka sariaren titularra ez izatea.
- d) Narratibako lanak izatea: eleberria edo ipuin-bildumak.
- e) Lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izango dira.
- f) Ez da onartuko lehiaketaren batean saritutako eta argitaratutako idazlanik ez osotasunean ez zati batean, eta ezta moldatutako idazlanik ere.

4.2. Honako hauek ezin izango dira sari hauen onuradun izan:

- Lege honetako 2. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua (2003ko azaroaren 18ko BOE).
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legeko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.

4.3. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.
- Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.
- Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:
 - a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
 - b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Saritutako pertsona egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

5. OINARRIAK ARGITARATZEA.

Oinarri hauek Udalaren osoko bilkurak onartu ondoren DDBNera bidaliko dira, eta ondoren GAO n argitaratuko dira.

Argitaratzeaz gain, Beasaingo Udalaren eta Elkar Argitaletxearen web orrian emango da oinarrien eta deialdiaren berri.

6.- ESKAERAK AURKEZTEA

Proiektuak aurkezteko epea GAO n argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko ekainaren 30ean amaituko da.

Eskaerak modu ofizialean aurkeztu beharko dira, hau da:

.- Udaletxeko sarreran erregistro ofizialean aurkeztuta, horretarako eskaria beteta.

.- On-line, hau da, udaletxeko erregistro elektronikoa erabiliz: www.beasain.eus

ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Beka eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu behar dira:

a) Landu nahi duen kontakizunaren azalpena, 2-4 orri bitarteko luzerakoa, egoki iritzitako ezaugarriak zehaztuz, hala nola, argumentua, egitura, liburuaren edukia (75 bat orrialde gutxienez), estiloa, etab.

b) Idazlanaren lagina edo erakusgarria, 15-20 orrialde bitartekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.

c) Egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun agiriaren kopia.

7. EPAIMAHAIAREN OSAKETA ETA EGINBEHARRAK.

Osaketa: Epaimahaia idazlan literarioetan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta kasu honetan honako hauek izango dira epaimahaikideak: Irati Jimenez Uriarte, Garazi Kamio Anduaga eta Olatz Mitxelena Larreta.

Egin beharreko lanak: jasotako proiektu guztiak aztertu eta haien artean irabazlea zein den izendatu 2024ko irailaren 15a baino lehen.

Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritiz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

8. LEHIAKETA EBAZTEA.

Epaimahaiak irabazlea izendatu eta Beasaingo Udalari jakinarazi ondoren, Alkateak dagokion Ebazpena emango du eta irabazleari jakinaraziko zaio. Ondoren, Beasaingo Udalak "Igartza Literatur beka" saria emateko ekitaldia antolatuko du eta irabazleari gehienez ere urtebeteko epea emango dio idazlana amaituta entregatzeko. Entregatutako idazlanak epaimahaikoen oniritzia jaso beharko du. Bitarte horretan egileak hasierako proiektua aldatu nahi izango balu, epaimahaikoei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onespena jaso beharko du.

9. SARIA ORDAINTZEA

Ordainketa modu honetan egingo da CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak diru ekarpena egin ondoren:

- 5.000,00€, Irabazlea izendatzen duen alkatetza-ebazpena ematen denean..

- 5.000,00€, idazlana amaitu eta entregatutakoan eta epaimahaikoek onespena emandakoan.

10. BEKA ITZULTZEA.

Irabazleak lana entregatzen ez badu, edo, epaimahaiaren iritiz, lanaren izaera eta kalitatea proiektuan aurkeztutakoa baino askoz kalitate txarragokoak badira, jasotako zenbatekoa itzultzeko eskatuko zaio.

11. DATUEN BABESA.

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

12. APLIKATUKO DEN ARAUDIA.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

13. EBAZPENA ETA HELEGITEAK.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi-gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.”

- BEASAINGO UDALAREN GIZARTE IZAERAKO LAGUNTZAK 2024. URTEA. 2024GILE0001

Ezagutzera eman da Herritarrek batzordeko proposamena:

“AURRERAKINAK

- 1.- Udaleko gizarte-zerbitzuek badakite oinarrizko gastuei aurre egiteko nahiko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak daudela, gizarte-babeseko beste sistema batzuek edo eta laguntzak DBE, GLL, etb. estali ezin dituztenak.
- 2.- Gizarte Ongizate azpisaileko arduradun teknikoak 2024-02-1ean egindako txostena.
- 3.- 0220.480.231.03.01 kontusail espezifikoan 7.500 euroko kreditua kontsignatu da gizarte izaerako laguntzetarako.

LEGERI APLIKAGARRIA LEGISLACIÓN APLICABLE

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. artikulua: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

- 1272008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 6. artikulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udalaraua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzaren Plan Estrategikoa 2023-2025

PROPOSAMENA

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian bizi diren pertsona / familiei gizarte izaerako laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarren: Alkateari dagokion deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu dira ondorengo oinarriak:

“BEASAINGO UDALAREN GIZARTE IZAERAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK. 2024. URTEA

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

Abenduaren 5eko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak 6. artikuluan adierazten duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, eta funtsezko helburuak honako hauek dira:

a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

b) Babesgabezia egoerek eragiten dituzten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

c) Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

d) Larrialdi egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

Lehen aipatutako helburuak betetzen laguntzeko, gizarte izaerako laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, eta aurrerago adieraziko dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.2 ildoak: baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen laguntzea).

Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin aurretik aipatutako helburuak lortzen lagundu dela, 2023. urtean 3 eskaera onartu bait ziren, 6.397€koak.

Horregatik, Udalaren nahia da horrelako laguntzen deialdia egiten jarraitzea.

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea da Beasaingo Udalaren gizarte-laguntzak arautzea, premiazko zat jotzen diren gastuei aurre egiteko.

2.- AURREKONTUA

0220.480.231.03.01 aurrekontuko kontu sailean “ Gizarte izaerako laguntza bereziak”, 7.500 euroko kreditua kontsignatu da 2024ko aurrekontuan.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du eskumena esleitura duen organoak, aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoa dela-eta, baina horrek ez du beste deialdi bat ekarriko.

3.- DEFINIZIOA.

Gizarte izaerako laguntzak Udalak premia larriko gastu ohiko nahiz ezohikoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen zuzenduta daude. Gastu horiek dira bizitza duina izateko ezinbestekoak direnak, alegia, osasuna, higiena, etxebizitza eta beste hainbat arloren inguruko gutxieneko parametroak betetzen dituen bizitza izateko funtsezkoak direnak.

4.- BESTE DIRULAGUNTZEKIN EZ BATERAGARRIAK IZATEA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango beste erakundeek emandako laguntzekin, helburu berdinerako, ondorengo arrazoei dela medio:

Bateraezintasuna ezartzen da DSB, GLL edo lehenik dauden beste laguntzekin, baldin eta ezin badu horietakoren bat eskatu horietarako ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

5.- DIRULAGUNTZEN IRAGANKOR IZAERA.

Aldi baterakoak dira, espero delako behar egoera hori pasatzea aurreikusitako epea igarotakoan, edo behar hori laster estali ahal izatea beste prestazio ekonomiko batzuekin. Ildo horretan, laguntza hau puntuala izango da edo hila batez batzuetara soilik egongo da mugatua.

6. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.

Gizarte izaerako laguntza hauek bideratuko dira aurrez definitutako gastuak estaltzera, betiere onuradunak ez badu baliabide ekonomiko nahikorik eta gastu horiek ezin badira diruz lagundu beste sistema batzuen bidez edo beste prestazio ekonomiko batzuk eskuratuta.

Diruz lagundu ahal izango dira gastu hauek: --Etxebizitza bat eskuratzeko sarrera eta mantentzearen ingurukoak (fidantza, alojera).

-Gizarte segurantzaren sistemak diruz laguntzen ez duen eta medikuak agindu duen medikazioa

-Diruz laguntzen ez diren hezkuntza gastuak.

-Ohiko gastuak: elikadura, arropak eta norberaren higienarako produktuak.

-Garraio gastuak (osasun-, okupazio-formazio-, adikzioen errehabilitazio zentroetara, jatorrizko herrialdera edo/eta baliokideak.

-Zorpetze gastuak.

- Udaleko gizarte langileak egindako txostenean teknikoki lehen premiakotzat jotzen diren beste gastu batzuk

Laguntzaren zenbateko osoak ezin izango du gainditu onuradunak aurkeztutako premiaren kostua.

7.- ONURADUNAK.

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke, eskaera egin baino 3 hilabete lehenagotik Beasaingo udalerrian erroldatuta eta bizi diren pertsonak.

Salbuespen gisa, Beasainen gaua ematen duen/igarotzen duen eta egoera prekarioan dagoen pertsonak planteatzen dituen egoerak ere aztertu ahal izango dira.

8.- BALIABIDE EKONOMIKORIK EZ IZATEA.

Laguntza ekonomiko hauen izaera dela eta, onuradunek, laguntzak eskuratu ahal izateko, baliabiderik gabeko egoeran egon behar dute. Egoera hori zehazteko, erreferentzia gisa erabiliko dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarilaren 18ko 4/2011 dekretuko irizpide ekonomikoak, 16/2017 Dekretua, urtarilaren 17koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena eta Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskuratzeko urtero ezartzen duen bizikidetzaren unitatearen tamainaren arabera urteko diru-sarreraren muga.

9.- ESKAERA EGITEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskaerak aurkezteko epea kontatzen hasiko da, eta 2024-12-13an amaituko da.

Ezarritako epeetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.

10.- ESKAERA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre
iGunean, astelehentik ostiralera:
8:30-13:30
Posta arruntaren bidez
Telematikoki: www.beasain.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengoa izango da:

- Eskaera orria, behar bezala beteta eta sinatuta (1 eranskina)
- NANik edo AIZrik ez badu, eskatzailearen pasaportearen fotokopia eta berarekin erroldatuta eta familia unitatea osatzen dutenena.
- Laguntzaren xede den gastuaren aurrekontua edo zorraren egiaztagiria.
- Lanagatik jasotzen dituen diru-sarreraren egiaztagiria, hala badagokio.

11. DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek

konsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeke eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: NA-NIE, datuak eta egiaztapena.

b) Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Kontuak
- PFEZ
- Ondasun higiezinak
- Ondarea
- Foru Ogasunarekiko zerga- betebeharrak egunean izatea.

c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala: Gizarte-prestazio publikoak.

4. Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

6. Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

12.-TRAMITAZIOA.ETA EBAZPENEA

Laguntza ekonomikoa tramitatzen hasten da gizarte langileak dena delako gastua baloratuta, ulertzen delako lehen premiako gastua dela.

Prestazioaren egokitasuna neurtuko da parametro hauen arabera:

- Diru-laguntzaren beharra eta urgentzia.
- Bizikidetzaren unitateko baliabide ekonomikoak nahikoak ez izatea gastu horiei aurre egiteko.
- Laguntza puntuala eraginkorra izatea planteatutako behar-egoera

konpontzen laguntzeko.

-Eskatzaileak edo, hala badagokio, bere familia-unitateko beste batek Udal honekin batera Arreta Plan Indibidualizatua (IEP) egiteko prestasuna eta lankidetzak aktiboa izatea. Erreferentziako gizarte-langileak baloratuko du IEP egiteko beharra..

Halaber, baztertu beharko da behar hori estaltzeko beste prestazio ekonomiko batzuk eskuratzeko epean dagoela.

Gizarte langileak txostena egingo du (ebazpen-proposamena) zerk eragin duen beharra, emango den diru laguntzaren zenbatekoa, kontzeptua eta proposatzen diren ordainketen kopurua adieraziz.

Balorazio-txostenak Beasaingo Udaleko Herritarrak saileko zinegotzi ordezkariaren oniritzia izan beharko du; Alkateak emango du ebazpena gehienez ere eskaera aurkeztu denetik hurrengo 2 hilabeteetan. Ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio.

Ebazpena eman ondoren, dagokion laguntza ordainduko da.

13.- ARAU-HAUSTEAK

Datuak ezkutatzek edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

14.- DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

15.- APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearena aplikatuko da.

16.- EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan."

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- OBRAK KONTRATATZEA: SAN INAZIO ETA ESTEBAN LASA KALEAK BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUKO OBRAK ESLEITZEKO PROPOSAMENA.
2023PROB0014

Ezagutzera eman da 2024-02-12ko Kontratazio Mahaiaren proposamena, hau da:

“1.- 2023-12-05. Udalbatza Osoak erabaki zuen obra horiek prozedura irekia eta arrunta bidez lizitatzea, eta horretarako, agiri administratibo eta teknikoak onartu zituen.

2.- 2023-12-11. Deialdia kontrataziorako plataforman argitaratu zen eta 2024-01-06an amaitzen zen eskaintzak aurkezteko epean, lizitaziora ondorengo enpresak aurkeztu ziren: 1.- CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, SA, 2.- UTE ZUBIEDER-MARIEZCURRENA, 3.- CONSTRUCCIONES URDINBERRI, SL, 4.- CONSTRUCCIONES OTEGUI GAZTAÑAGA SL, 5.- CONSTRUCCIONES MOYUA, SL, 6.- URBYCOLAN, SL

3.- 2024-01-08. Jarraian aipatzen diren dokumentuak dituen A artxibo elektronikoa ireki zen: Dokumentazio administratiboa (DEUC) eta tituluak.

4.- Kaudimen-betekizunei buruzkodokumentazioa kalifikatu ondoren, egiaztatu zen enpresa guztiek, batek izan ezik, pleguan eskatzen den sailkapena (G Taldea, 6 Azpitaldea, 5 kategoria) ez zuela aurkeztu.

URDINBERRI, S.L. enpresak bere kaudimena osatzeko (eskatzen den taldea eta azpitaldea badu ere, kategoria betetzea falta zaio) beste enpresa baten klasifikazioaz baliatzen da, hain zuen ere, VIUDA DE SAINZ, S.L. enpresarena. Horretarako bi enpresen ordezkariak sinatutako konpromiso-idatzia aurkeztu dute adieraziz esleipendun suertatu ezker lizitatzailerak exijitutako kaudimena izango duela obrak irauten duen bitartean.

Gertatzen da, ordea, ez dela VIUDA DE SAINZ, S.L. enpresaren klasifikazioa aurkeztu eta horren ondorioz 2024-01-08ko datarekin URDINBERRI, S.L. rierrekerimendua egin zaio 3 laneguneko epean kaudimena osatzeko baliatzen den enpresaren klasifikazioa aurkezteko.

Errekerimendua egindako egunean bertan, kontratazio plataformaren bidez aurkeztu da VIUDA DE SAINZ, S.L. enpresaren klasifikazioa. Egiaztatu da baldintza pleguan eskatzen dena duela, hau da: G Taldea, 6 Azpitaldea, 5 kategoria

Ondorioz, enpresa guztiei onartu zitzaizen lizitazioan parte hartzea.

5.- 2024-01-09an, 11,00etan izango dela. B artxibo elektronikoa irekitzea.

Lizitatzailerak aurkeztutako memoria zerbitzu teknikoei pasa zitzaizen txostena emateko. Txosten hori 2023-11-17ko datarekin eman da (9. atala).

Proposamen teknikoak aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiko kidea den Lurralde Arloko koordinatzaileak, 2024-01-18an, balorazio-txostena eman zuen. Mahaiko gainerako kideek aztertu zuten, eta oniritzia eman zioten.

Lizitatzailerak lortutako balorazioa (automatikoki ebaluatu ezin diren balorazio-irizpideen guztizko puntuazioa, 30 puntu), honako hau da:

CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS S.A.	21,70
CONSTRUCCIONES ZUBIEDER S.L. y CONSTRUCCIONES MARIAZCURRENA S.L.	22,50
CONSTRUCCIONES MOYUA S.L.	25,80
CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGAS.L.	22,55
CONSTRUCCIONES URDINBERRI S.L.	16,40
URBYCOLAN S.L.	24,40

6.- 2024-01-19an egingo dela, 10,00etan. C kartazalaren (formula automatikoen bidezbaloratuko diren irizpideak) irekiera ekintzapublikoan.

- Eskaintza ekonomikoa (2. Eranskina) 60puntu.
- Berme epea handitzea 11. Eranskina) 10puntu.
- 4. Eranskina. Azpikontratazioa

Lizitazio prezioa: 2.854.002,97 €+ 599.340,62
€= 3.453.343,59 €

Egikaritze epea: Urte bete.

7.- C artxibo elektronikoa ireki ondoren, enpresa lizitatzailleek honako hau eskaini dute:

Lizitatzaillea k Licitadoras	Eskaintza ekonomikoa Oferta económica	Bermea guztira Garanti a en total
CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS S.A.	2.439.125,7 5	8
CONSTRUCCIONES ZUBIEDER S.L. yCONSTRUCCIONES MARIAZCURRENA S.L.	2.672.825,1 0	8
CONSTRUCCIONES MOYUA S.L.	2.531.500,6 3	8
CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA S.L.	2.106.579,0 4	8
CONSTRUCCIONES URDINBERRI S.L.	2.691.768,3 8	8

URBYCOLAN S.L.	2.288.788,8 1	8
----------------	------------------	---

8.- Bokal teknikoaren txostenarekin bat etorritik (honekin batera doa), CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA enpresa enpresak ezohiko eskaintza egin du, Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 85. artikuluan ezarritako parametroen arabera.

Horren ondorioz, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, bere eskaintza ekonomikoaren maila baxua justifikatzeko errekerimendua egin zitzaion.

9.- 2024-02-07. Kontratazio plataformaren bidez, CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGAk aurkezten du errekeritutako justifikatzea.

Bokal teknikoak 2024-02-09an txostena eman du adieraziz aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, egindako eskaintza ekonomikoa modu egokian justifikatzen dela.

Horietako bakoitzak guztira lortutako puntuazioa honako hau da:

Lizitatuzaileak Licitadoras	Memoria	Prezioa precio	Berre epea handitzea Ampliación plazo de garantía	GUZTIRA TOTAL
CAMPEZO OBRAS S.A. YSERVICIOS	21,70	17,44	10,00	49,14
CONSTRUCCIONES ZUBIEDER S.L. y CONSTRUCCIONES MARIAZCURRENA S.L.	22,50	7,62	10,00	40,12
CONSTRUCCIONES MOYUA S.L.	25,80	13,56	10,00	49,36
CONSTRUCCIONES OTE GIGAZTAÑAGA S.L.	22,55	31,43	10,00	63,98
CONSTRUCCIONES URDINBERRI S.L.	16,40	6,82	10,00	33,22
URBYCOLAN S.L.	24,40	23,67	10,00	58,17

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaia kontratazio organoari (Plenoa) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA S.L. enpresari ondorengoa

esleitzea: San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obrak exekutatzea.

Bigarren. Esleipena baldintza-pleguen (administratiboa eta teknikoa), eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.

Hirugarren. Esleipen prezioa: $2.106.579,04 + 442.381,60 = 2.548.960,64$ €.

Laugarren. Egikaritze epea: 18 HILABETE zuinketa akta egiaztatzea sinatzen denetik.

Bosgarren. Berme epea: 8 urte.

Seigarren. Kontratuaren arduraduna, Lurralde arloko koordinatzailea izango da.

Zazpigarren. Kontratistaren aldetik obraren burua, Alberto San Matias Becerro, izango da.

Zortzigarren. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:

1. 105.328,95 €ko behin betiko fidantza.
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.

Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru poliza, gutxienez a 600.000,00 €koa.

Bederatzigarrena. Fidantza eta bestelako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako, Alkateari ahalmena emango zaio, eta, ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Entendemos que ante la baja temeraria efectuada por la empresa a la que se propone adjudicar el contrato, viene justificada por la minoración en el beneficio industrial pero nos crea serias dudas y nos preguntamos si luego no se va utilizar el 20% para suplir aquello que ahora no lo han previsto.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Onura portzentajea jaitsi egin dute eta esaten dute makinaria beraiena denez ez dutela amortizazio gasturik. Egindako baja justifikatuta geratu da teknikariak egindako txostenaren arabera eta kontratazio mahaiak ere ontzat eman du. %20a aipatu duzu baina %10a da Kontratu Legeak aipatzen duen desbideraketa posible hori, baina denok espero dugu obra ondo joatea.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Legeak aukera ematen du %10eko horrekin jokatzeko, baina hori ere justifikatuta egon behar du eta justifikazio hori teknikoak ontzat eman beharko luke.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

b.- AA SS: BEASAINGO PLANGINTZAKO AA SSEN ALDAKETA PUNTUALA, 10. EREMUAREN ("ARANGOITI") ANTOLAMENDU XEHATUARI DAGOKIONA. BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Ezagutzera eman da, Lurralde batzordeko proposamena:

"AURREKARIAK

1.- 18-05-2023 (GAO, 1-06-2023). Udalbatza Osoak, 34. area eta 1Sektoreari dagokion Arau Subsidiarioen aldaketa behin betiko onartu zuen. Aldaketa horren helburua, besteak beste, honako hau da:

34. Arearako oinezkoentzako irisgarritasuna hobetzea, Nekolalde kalearekin lehendik dagoen bizitegi-garapen berria lotuko duen igogailu publiko bat eta pasabide bat eginez (eremutik kanpo).

2.- Igogailua eta pasabidea (zuzkidura publikoa) 34. arearen alboan dagoen 10. arean kokatuko dira eta horiek exekutatzeko, aldezturik lurzorua lortu behar da desjabetzea gauzatzeko sistema erabiliz, titularrek ez diotelako erantzunik eman udalak egindako erosketa-proposamenari.

3.- Horretarako, Udalak ondorengo dokumentuaren erredakzioa enkargatu du: Beasaingo plangintzako AASSen aldaketa puntuala, 10. eremuaren ("Arangoiti") antolamendu xehatuari dagokiona.

4.- Nahiz eta dokumentuak adierazi aldaketak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, 211/2012 Dekretuaren 5,2 artikuluan ezarritakoaren arabera, 2023-10-31en kontsulta egin zitzaion EAEko ingurumen-organoari, AA SSren aldaketak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren beharrari buruz.

2023-12-13an Ingurumen-organoaren erantzuna jaso zen adieraziz aipatutako AA SSren aldaketak ez duela behar ingurumen-ebaluazio estrategikoa.

5.- 2023-11-20. Udalari aholkatzen dion arkitektoak txostena eman du.

6.- 2023-11-24. Udal Idazkariak txostena eman du.

7.- 2023-12-18. Alkate andrearen Ebazpena "Beasaingo plangintzako AASSen aldaketa puntuala, 10. eremuaren ("Arangoiti") antolamendu xehatuari dagokion" dokumentuari hasierako onespina emanez.

8.- Ebazpena jendaurrean jarri zen, Diario Vasco eta Berria egunkarietan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizilean iragarkiak argitaratuz, 2023-12-20an, 2023-12-21ean eta 2024-01-30ean iragarkiak argitaratuz, hurrenez hurren.

9.- 2023-12-20an. Nekolalde 2-4 jabekideak ordezkatzan dituzten ASEPLAN aholkularitzari eta desjabetu behar den terrenoaren titularren ordezkari egiten duenari Ebazpenaren berri eman zitzaion jakinarazpena bidaliz.

10.- 2024-01-30. Alegazioak aurkezteko epearen amaiera. Epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

11.- 2024-02-13. Hizkuntza-politikako teknikariaren txostena, proposatutako aldaketak hizkuntza-inpaktuan eragin eskasa duela adieraziz.

OINARRI JURIDIKOAK

Legeri aplikagarria artikulua hauetan jasota dago.

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea: 56. artikulua (hirigintzaren antolamendu xehatua), 57 artikulua (tokiko sistemen zuzkidura-sarea), 95. eta 96. artikulua (plan partzialak izapidetzea) eta 139. Artikulua (sistema orokorren eta tokiko sistemen sareetako zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketak)

- Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarria, izapidetzeari dagokionean, hau da: 30. artikulua (antolamendu xehatuaren aldaketa).

- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen: 32. artikulua (plan bereziak egiteko eta onartzeko prozedura).

Ondorioz, Batzorde honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22,c) artikulua). Onartzeko nahikoa da gehiengo soila izatea (aldeko botoak aurkakoak baino gehiago):

Lehenik. Ondorengoari behin betiko onespina ematea: Beasaingo plangintzako AASSen aldaketa puntuala, 10. eremuaren ("Arangoiti") antolamendu xehatuari dagokiona. Aldaketaren helburua 1 eta 2 zenbakietan azaltzen dena da.

Bigarren. Behin betiko erabakia hasierako Ebazpena jakinarazi zitzaienei jakinaraztea."

Hirugarren. Gipuzkoako Foru Aldundia ere dokumentua diligentziaz bidaltzea, foru erregistroan gordetzeko.

Laugarren. Behin betiko onespeneraren erabakia probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratzea eta onartutako xehetasunekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratzea.

Bosgarren. Behin betiko onarpena eta dokumentua bera Beasaingo Udalaren web orrian ere argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gu gai honen inguruan gure desadostasuna adierazi dugu eremu horretan etxebizitza sustatzeko aurreikusten den eredua dela eta. Gure iritziz ez da herritarrei etxebizitza bermatzeko eredua eta horrela azaldu dugu. Kasu honetan ere, ezezkoa bozkatu dugu lotuta doan gaia delako. Orain tratatuko ditugun mozioekin ez zaigu oso koherentea iruditzen.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Kasu honetan aldaketa puntual honek etxebizitza ereduari baino irisgarritasunari egiten dio aipamena eta garatzea pentsatzen den etxebizitzeari eragingo lioke baina baita ere egun Flemig-en bizi diren bizilagunei.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai, bertako bizilagunek aspaldi hau eskatu zuten baina oso argi geratu zitzaigun, zuek esanda, promotorearekiko erakargarritasuna.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Nik uste dut informazio hori ez dela zuzena. Azken finean, promotorearentzat erakargarria izatea baino, Udalak eskatu dio promotoreari toki horretan igogailua jartzeko, horrek berarentzat suposatzen duen kargarekin.

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Eso además lo solicitamos nosotros.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Hemen zer gabiltz, zein gehiago...!”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gaia gehiengo osoarekin onartu da.

5.- MOZIOA:

- EH BILDUREN MOZIOA AREA TENTSIONATUA IZENDATUA IZATEKO ESKAERA EGINEZ. 2024IDBO0009

Alkate andreak Beasaingo EH Bildu udal taldeari hitza eman eta Hasier Agirre Elkoroberezibar bozeramaileak ondorengo mozioa irakurri du:

“BEASAINGO UDALBATZARI
TALDE POLITIKOA EH BILDU
UDALA BEASAIN

Goian adierazitako udalerriko talde politikoaren zinegotziek, eztabaidatzeko, eta hala balegokio, onesteko, hurrengo MOZIOA aurkezten dute:

Udal Gobernuak area tentsionatuak izendatuak izateko eskaera formala egin dezan

ZIOA

2023ko abenduaren 14an Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak argitaratutako txostenean datuobjektiboekin zehaztu zen dagoeneko Beasainek betetzen dituela area tentsionatu gisa izendatuaizateko baldintzak.

Txostenarekin batera protokolo bat argitaratu zen, area tentsionatuak izendatzeko Jaurlaritzak etaUdalek era koordinatuan egin beharreko pausuak zehazten dituen. Protokoloaren arabera, orain Beasaingo Udal Gobernuak area tentsionatua izendatua izateko eskaera formala egin behar du, hainbat agiri eginez eta Jaurlaritzari bidaliz.

Hori dela eta, EH Bilduko udal taldeak hurrengo mozioa aurkezten du:

Mozioa

Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 6 hilabeteko gehieneko epean igorri diezaiola Jaurlaritzari area tentsionatuak izendatuak izateko eskaera formala, gutxienez hurrengo agiriekin batera:

- 1.- Memoria justifikatiboa, zeinetan etxebizitza-eskaintzaren eta -prezioaren egoera eta bilakaera adieraziko den, datu objektiboen bidez, area tentsionatu gisa izendatuak izateko Jaurlaritzak jada zehaztutako eremuaren mugaketarekin batera.*
- 2.- Ekintza-plan espezifikoa, zeinetan Jaurlaritzak jada zehaztutako eremu tentsionatuetan etxebizitzaren eskaintza eta eskaria orekatzeko neurri zehatzak zehaztuko diren, baita horiek gauzatzeko kronograma bat ere, 3 urtera begira.*

- EAJREN MOZIOA ETXEBIZITZA GUNE TENSIONATUAK IZENDATZEAREN INGURUAN. 2024IDBO0009

Jarraian Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV), ondorengo mozioa irakurri du:

“ETXEBIZITZA GUNE TENSIONATUAK IZENDATZEAREN INGURUAN

ZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoan, urte luzeetan, Etxebizitzaren Euskal Legearekin eta Etxebizitzaren Estatuko Legerik gabe, askatasunez hartu izan ditugu etxebizitza politiken inguruko erabakiak. Gaurko egoera aldiz oso bestelakoa da. Eusko Legebiltzarrak onartutako ekainaren 18ko Etxebizitzaren 3/2015 Legeaz gain, Espainiako Parlamentuak onartutako Etxebizitza eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 legea gaineratu zaigu.

Etxebizitza gune tensionatuen izendapena, Espainiak onartutako legeak ahalbideratzen duen neurria da. Baina, tokiko erakundeak dira, hau da, tokian-tokiko udalak, izendapena eskatzeko gaitasuna dutenak, beti ere legeak aipatzen dituen baldintzak betetzen badira. Baldintza horien artean, legoke etxebizitzaren prezioa KPlaren gainetik 3 puntu igo izana azken 5 urteetan edota, herritarrok etxebizitzaren ordainketarako soldataren % 30 baino gehiago bideratu behar izatea.

Udalak aukera izan dezan Jaurlaritzari eskatzeko bere herria osotasunean edo zati batean gune tensionatua izendatzeko, memoria justifikatibo bat eta ekintza plan bat aurkeztu behar du, etxebizitza eskaria eta eskaintza orekatzeko hartuko dituen neurriak zeatzuz kronograma baten bidez.

Ikusirik, herria gune tensionatua izendatzeko eskaera egin ahal izateko etxebizitza parkearen azterketa egitea derrigorrezkoa dela, eta jakinik etxebizitza politiken inguruan neurriak hartzeko diagnostiko ahalik eta zehatzena izatea garrantzitsua dela, ondorengo proposamena egiten dugu:

PROPOSAMENA

1. Udal Gobernuak abian jar dezala lehen bait lehen bere udalerrri osoko etxebizitzaren egoerari buruzko azterketa sakon bat. Azterketa hori ezinbestekotzat jotzen dugu etxebizitza egoeraren ezaugarriak eta egon litezken arazoen neurria ezagutzeko.

2. Azterketa horretan kontuan hartu beharko da:

a. Udalerrian dagoen etxebizitza kopurua.

b. Etxebizitza hutsen kopurua (kasuan, OHZ-an errelegaria dutenak edo 2015eko Etxebizitza Legearen eta ondorengo 149/2021 Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren arabera kanona ezartzeko prozedura zein nailatan dagoen garatuta).

c. Zenbatetan dagoen norbait erroldatuta (legerian arabera “etxebizitza huts” izatek salbuetsita daudenak ezagutzeko, nahiz bertan inor erroldatuta egon ez).

d. Zenbat etxebizitza turistiko dagoen.

e. Zenbat etxebizitza alokairuan; horietan, kasuan, zenbatek jasotzen duten bertan bizi direnek dirulaguntzaren bat (gizarte laguntzak, emantzipazio laguntzak...)

- f. *Etxeak baino logelak hedatzeko joera hedatzen ari ote den.*
 - g. *Alokairuan dagoen etxe kopuruaren bilakaera azken urteetan eta alderik ba ote dagoen Madrilek legea onartu ondorengo joeran.*
 - h. *Alokairuan dauden etxeen bataz besteko prezioen bilakaera.*
 - i. *Salmenta prezioen bilakaera.*
 - j. *Etxebizitza bihurtzeko aukera duten lokal kopurua eta zenbat egin diren aukera eman zenetik. Zenbat lokal dauden hutsik eta hauen ezaugarriak.*
 - k. *Udalerriko babestutako etxebizitza kopurua (tasatuak, babes ofizialekoak -jabetzan eta alokairuan-, alokairu sozialekoak, apartamentu tutelatuak, larrialdi egoeretara bideratutakoak, etxe dotazionalak...)*
 - l. *Udalerrian birgaitze politikarik ba ote dagoen. Edo gauzatu ahal izateko aukera aztertuta edo aurreikusita dagoen.*
 - m. *Udalerriko Plan Orokorrak zein hazkunde eremu jasotzen dituen datoen urtetan egingarriak: aurreikusitako etxe berri kopurua, epeak, kudeaketa publikoa/pribatua, salmenta/alokairua, libre/babestuak...*
 - n. *Udalerriko familien bataz-besteko errenta (datuak auzoz-auzo bereizita).*
3. *Txosten horretan, udalerriko alokairuaren merkatuan egoeran eta bilakaeran jarriko da azpimarra berezia. Txosten hau izango delako, kasuan, gune tentsionatuen izendapen formala egiteko ezinbestekoa den Justifikazio Memoriaren eta Ekintza Planaren ardatza.*
4. *Azterketa horren emaitza eskuartean udalak egoki ikusten badu Eusko Jaurlaritzari gune tentsionatuen izendapen eskaera ofiziala egin dezala."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Este tema ya se ha tratado hace unos meses. La plataforma STOP DESAHUCIOS presentó en el Pleno una moción para declarar Beasain como zona tensionada, sobre la cual nos posicionamos a favor y también estamos a favor de la moción que ahora presenta EH Bildu. No estamos a favor de la moción del PNV. Creemos que lo que busca es dilatar el proceso de declaración de zona tensionada. En nuestra opinión esa declaración es necesaria para aplicar diferentes acciones y solventar los problemas de vivienda en el municipio. El observatorio de la vivienda del Gobierno recogió que Beasain cumple los requisitos para ser declarada zona tensionada. El análisis y memoria que se desea realizar es algo necesario para presentar para efectuar esa declaración y por ello no le vemos sentido."

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Guk uste dugu Evak esan duen bezala, gaia hau tratatu zela duela hilabete batzuk eta pena bat iruditzen zaigu herritarrek sartutako plataforma batek adierazitakoa ez berrestea. Gu ere lehenengo mozioaren alde azaltzen gara, gaur egun dugun estatuko legeak adierazpen hori egiteko eskumena izango genuke. Ez dugu ikusten arazorik konpententziaren ikuspuntutik. Bigarren mozioaren aurka egingo dugu zeren eta, azterketa sakon bat egin behar den bezala, 2015eko

etxebizitzaren euskal legea indarrean dagoenetik azterketa hori egiteko denbora izan da. Behintzat bideratuta egoteko, bai.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Mozioa aurkeztearen arrazoietako bat da STOP DESAHUCIOS-en mozioa onartu zen baina eremu tentsionatua izendatzeko, ez zen zehazki aipatu azterketa horren beharra, nahiz eta jakin ezinbesteko baldintza dela. Mozio hau haren gehigarria izango litzateke. Hau baieztapena izango litzateke azterketa hori egiteko eta epe muga bat jartzeko. Izan ere arazoa handia da eta irtenbideak ere azkarrak izatea behar dute.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gure kasuan eta berriro errepikatuko dugu Espainiako etxebizitzaren legearen aurka gaude gure eskumenak urratzen dituelako. Horren adibide aste honetan, dakizuen bezala, Eusko Jaurlaritzak bere aholkulari juridikoek hala ikusita errekurtsioa jarri dute lege horren aurka. Ebazpenaren baitan, guk hartutako konpromisoak betetzen ari gara. Konpromisoak guri atera zaizkigunak, plenoan inork ezer eskatu gabe, ordenantza fiskalak eta etxebizitzaren errekareruak aztertzen ari ginenean esan genuen aurrekontuetan partida bat jarriko genuela Beasaingo etxebizitzaren azterketa zehatza egiteko eta jakiteko zenbat etxebizitza huts ditugun. Oso erraz entzuten dugu ea 1000 etxebizitza huts ditugula, baina diagnostiko honek esango du benetan Beasainen etxebizitza hutsen, alokairuen eta etxe babestuen zenbatekoa. Horren baitan, etxebizitzaren behatokiak, hala esan du bi irizpideetatik bat beteko guke eta izango litzateke azken 5 urteetan bataz besteko errentaren inguruan eskatzen da %17tik gora izan duten herriek beteko dutela irizpide hori. Gure kasuan abenduko datuen arabera, %17,39an gaude, azterketa martxan daukagu eta azterketa horrek epealdi horretan esango du betetzen duen ala ez edo zein baldintzak bete beharko lituzken. EH Bilduren mozioak proposatzen duena da bai ala bai eskatzea sei hilabeteko epean eta guk esaten dugu baldintzak betetzen badira. Hori oinarritzat harturik gu EH Bilduk aurkeztutako mozioaren aurka egingo dugu eta gurearen alde.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Baldintzak ez baditugu betetzen ez dago dudarik ezin dela eskatu. Autogobernua aipatu duzu eta gogoratuko dizuet 2015eko legea autogobernu famatu horren legea, lehendabizi EAJko aurkako bozkarekin onartu zela. Besteak beste, bigarren etxebizitzari errekareru jartzea, onartzen duen legea. Hain zuzen ere, azkeneko 5 urteetan irailero Beasaingo tasak ezartzerakoan eskatu dugun neurria eta beti ukatu zaiguna. Bankuak dituzten etxebizitza hutsak desjabetzea. Hori da 2015eko EAEko legeak ahalbidetzen dituen neurriak. Ondo dago esatea gurea defendatzen dugula, baina gero egunero demostratu egin behar da eta onartzen diren legeak errespetatu. Hori ere autogobernua errespetatzea da: Onartutako legeak betearaztea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zentzu horretan guk, autogobernua errespetatuz gure eskumenak direnak, gure mantendu nahi ditugu eta ez diogu beste inori saldu nahi. Ordenantza fiskalak tratatzen ditugunean, errekareruaren inguruan esan urtero aipatzen den gaia dela. Zuek eskatu egiten duzue eta guk beti bezala baloratu eta aztertu egiten dugu baina beti ematen dugun erantzuna da ezagutzen ditugun kasu eta herrietan, gure antzekotasun handia duten herrietan, neurri hori jarrita horrek ez duela helbideratu etxebizitzak gehiago alokairuan jartzea. Gure neurria bestea izaten da: alokairura sustatzeko jabe horiei hobariak ematen zaizkie, ETXEBIDE eta

antzeko programetan alokairuan jartzeagatik.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, lehenik bozkatu da Beasaingo EH Bilduk aurkeztutako mozioa:

Eraitza ondorengo izan da:

Aldeko botoak: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 9 (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 0

Ez da onartu aldeko botoak aurkakoak baino gutxiago direlako.

Jarraian bozkatu da EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa eta ondorengo eraitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 3 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da EAJ-PNV aurkeztutako mozioa.

6.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman da, ondorengo Ebazpenen zerrenda:

- 2024-01-22tik 2024-02-25era emandako Ebazpenak.
- 2024an egindako kontratu txikiak, baina 2023ko aurrekontuaren kargura.
- 2024-01-22tik 2024-02-25era emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

ANDRAMENDIKO BIDEA

Herritarak baten adierazpenak: “Urtarrileko plenoan Andramendiko bidearen arazoa aipatu zen eta neurriak hartuko zirela adierazi zen. Andramendiko jabeak kotxea gurutzatuz bidea itxi zuen. Udaltzaingoa bertaratu zen kotxea kendu arazteko gasoila zeramatzan kamioia geratu zelako atera ezinik eta esan zen isuna jarriko zitzaiola,

beste esku-hartzeaz gain. Denbora pasatu denez, jakin nahiko nuke gaia nola dagoen, izan ere ez dut inolako berririk izan.

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Jakin kasu honetan ez dela prozedura azkarra izango. Isuna udaltzaingoari erreklamatu diot eta oraindik ez da izapidetu. Motel ibili gara baina hori beteko da.”

Herritarrak: “Bai, beteko da baina nik hemen kotxea gurutzatuko banuke, bi hilabete pasatuko lirateke baita ere edota hilabete eta erdian ez zaik isunik iristen.?. Nik gaizki aparkatzen badut 20 minutura isuna dut.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Ez zait iruditzen egoera honen irtenbidea izango denik isuna 15 egunetan jartzea. Aitortzen dut akaso teknikariek motel ibili direla.”

Herritarrak: “Aitortzen dut isun horrek izango dituen eraginaren lehenengoetakoa ni izango naizela.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): “Bai eta gu ez gara beste alde batera begiratzen ari. Agindutako konpromisoari helduko diogu eta erantzuna ez da ezberdina izango. Gero beste bi lanketa daude: ITEarena eta bidearena.

Bideari dagokionez, aurreratu nizun lehenik erabaki bat hartu beharra genuela ikusteko egungo ibilbidea moldatzen den edo HAPOk bigarren aukera emango lukeen. Aztertu da eta iruditzen zaigu egungo ibilbidea moldatzea dela modurik hoberena. Bai horretarako eta baita ere ITERako egin behar duguna da enpresa bati kontratua esleitu, bidearekiko urbanizazio proiektua egin behar delako. Enpresa batengana jo dugu eta ikusita lanaren izaera, uko egin dio lan horri heltzeari. Hori dela era bigarren enpresa batengana jo dugu eta espero dugu enpresa honek lana hartzea. Urbanizazio proiektu ondoren, pauso juridikoak emango ditugu baina tamalez ez da hilabete baten barru bideratuko den zerbait izango.

Herritarrak esan du udaltzainen presentzia toki horretan ez dela bermatzen eta goizetan batez ere kotxeak gaizki aparkatuta egoten direla.”

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV): Udaltzaingoari egoeraren berri eman zaio. Udaltzainek herrian zehar betebeharrak asko dituzte eta ezinezkoa da momentu oro presentzia izatea.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estamos hablando de que en un mes y medio no se puesto una multa a esta persona. Eso no conlleva que primero tiene que haber una primera notificación en el momento en que sucede la falta administrativa?.

Idazkariak esan du lehenengo pausoa dela salaketa jartzea.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Kontua da udaltzainen ikuspegitik arau-hauste arina dela. Herriko hainbat eremutan gaizki aparkatzeak dakar momentua salaketa izatea, baina kasu honetan errepide arrunta ez denez, momentuan egoera kudeatzea lehenetsi zuten, isuna jartzea baino. Geroztik isuna jartzearen esku-hartzea izan da. Eskatu zaie

udaltzainei isuna jartzeko baina tamalez, Adurrek esan duen bezala, isuna jartzea ez da izango arazoaren konponbidea.

Herritarrek: “Bai, baina bera jakitun izango da bidea ezin duela itxi. Bere garaian ere isuna jarri zitzaion eta Ertzaina bertaratu zenez, zepoa jarri zion. Ulertzen dut kudeatzen ez dela erraza, baina berari ere iristen bazaio ondorioak dituen neurri bat, agian pentsatu araziko dio portaera horrekin noraino iritsi daiteken.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Egunak azkar pasatzen dira eta tamalez urteak daramatzazue egoera hori jasaten eta ulertzekoa da arazo hau gauetik goizera ez dela konponduko. Dena dela nik uste dut konponbidearen bide bat ireki dela: bidea zabaldu eta berari hainbat gauza eskatu. Espero dugu epe ertain-luzean egoera hori konpondu ahal izatea. Hori da behintzat guztion nahia.”

UDALTZAINGOAREN JARRERA

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Ez nuen asmorik salaketa egiteko azaroaren greba feministan Beasaingo udaltzaingoak institutuan izandako jarrerarekin. Identifikatu gabeko bi pertsoneri 600 €ko isuna iritsi zaie. Hau “ley mordaza pura y dura” da. Batzuetan gauzak azkar egiten dira eta horrek zer pentsa ematen du. Askotan eztabaidatu dugu udaltzaingoaren jarrera eta eredua, hau da. pikete informatibo bati, hau da, hiru gazteei bakoitzei 600 €ko isuna eta horietako bi identifikatu gabekoak.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Tipifikazioa ezberdina da. Andramendiren kasuan arau-hauste arina da eta Institutuko gazteen kasuan, bertako irakasleei beraien lanerako eskubidea oztopatuz egindako esku-hartze baten ondorioz da. Irakasleei ez uzteagatik zentzura sartzen eta udaltzainen aurrean ere oso jarrera oldarkor eta desagokoa izateagatik. Beraz, isunaren tipifikazioa ere ezberdina da eta horregatik prozedura ezberdina izatea.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Ez dakit oldarkorra edo..., bakoitzak bere balorazioa egingo du. Garbi dagoena da identifikatu gabeko bi pertsoneri 600 €ko isuna iritsi zaiela. Hori badakigu zein legean dagoen oinarrituta eta Beasaingo udaltzaingoak praktikan jarri du lege bat, gustatu ala ez.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Erresistentzia egon zen eta bertako irakasleei ez zitzaien errespetatu lanerako eskubidea. Ez zitzaien utzi sartzen erresistentzia erabilita eta jarraian udaltzainen aurrean jarrera hala modukoa izan zen. Ley mordaza, bai baina denok antzeko.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Andramendiren kasuan, Lurraldeko bilerara etorri zenean esan zuen jabeari zegokiola belarrak moztea baina moztzen ez zuenez, udaleko langilean joan zirela udaltzaineekin betebeharrak hori egitea eta ez zuela utzi eta oso oldarkor jarri zela eta ertzainek esku-hartu behar izan zuela. Ez dakit kasu horretan Andramendiko jabeak 600 €ko isuna jaso zuen.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ulertuko duzun bezala, gu ez ginen momentu horretan egon eta ez gara inor hori baloratzeko.”

Alkatea eta Beasaingo EH Bilduren bozeramailearen artean aipatutako gertaeren baloraketei buruzko eztabaidaren ostean, Alkateak bilera amaitutzat eman du.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen akta hau idatzi eta sinatu dut.

01:27:29

